

# Zuberoako Irri-teatroa

(Comic theatre in Zuberoa)

Urkizu, Patri  
Eusko Ikaskuntza  
Miramar Jauregia. Miraconcha 48  
20007 Donostia

BIBLID [1137-4454 (1999), 16; 199-246]

---

*la bazterturik izan den teatro mota berezi bat aztertzen da saio honetan zazpi atal bereziz. I. Izenak; II. Etorkiak; III. Egileak; IV. Gaiak; V. Jazkera, dantza eta musika; VI. Hizkuntzak; VII. Literatur balioak. Aintzindari zenbaiten lanari jarraikiz (Michel, Héréelle, Desplat, Rey-Flaud...) eta eskuzkribu ezezagun (1998 arg.) anitz arakataz berauen interesa azpimarratzen da hala nola europar herri teatro berdintsuekin zuberotar astolasterrek dituzten loturak.*

*Giltz-Hitzak: Euskal literatura. Herri-teatroa. Astolaster.*

*En este trabajo se analiza un tipo de teatro particular que ha estado casi marginado. Se procede a dicho estudio en siete apartados: I. Nombres; II. Orígenes; III. Autores; IV. Temas; V. Indumentaria, bailes y música; VI. Lenguas; VII. Valores literarios. Se continúa el trabajo de algunos predecesores (Michel, Héréelle, Desplat, Rey-Flaud...) y se investiga en numerosos manuscritos inéditos (1998 ed.), subrayándose el interés de los mismos y los vínculos que mantienen estos charivaris de Zuberoa con diferentes teatros populares europeos del mismo género.*

*Palabras Clave: Literatura vasca. Teatro popular. Charivari.*

*Dans ce travail on analyse un genre de théâtre particulier qui a été quasiment marginalisé. On a divisé cette étude en sept parties: I. Noms; II. Origines; III. Auteurs; IV. Thèmes; V. Costumes, danses et musique; VI. Langues; VII. Valeurs Littéraires. On poursuit le travail de certains prédécesseurs (Michel, Héréelle, Desplat, Rey-Flaud...) et l'on procède à l'étude de nombreux manuscrits inédits (1998 ed.), en y soulignant l'intérêt de ceux-ci et les rapports que maintiennent ces "astolasterrak" de Zuberoa avec différents théâtres populaires européens du même genre.*

*Mots Clés: Littérature basque. Théâtre populaire. Charivari.*

## SARRERA

ZUBEROAKO Irri Teatroak badu tradizio luze bezain aberats bat aski ezezagun dena,- oraindik argitara gabe baitago osorik, eta argitaratua denak oso zabalkunde urria izan baitu-hobeto ezagutzea merezi duenik eta etnologia, soziologia, hizkuntza eta literatur ikuspegi ezberdinetatik ikerketa sakonik mereziko lukeena. Astolasterrez ari natzaizu, irakurle, eta hemen gaiari dagokion hurbiltze saio bat egingo dugu soilik.

Guti izan dira arduratu direnak honetaz, aurre-iritzi moralak zirela tarteko. Adibidez, Julio de Urquijok ez zien lekurik eman bere aldizkarian zuten hizkuntza aske eta lizun zelako, eta azken hiru hamarteetan Gabriel Aresti [1971], Patri Urkizu [1973, 1984, 1998], Txomin Peillen [1982], eta Iñaki Mozos [1986] saiatu dira bakarrik argitaratzen XVIII. eta XIX. mendeetako zenbait eskuzkiribu. Hamazazpi orotara, beste zenbait gehiago oraindik Pariseko Liburutegi Nazionalean, Bordeleko eta Baionako Herri Liburutegietan eta azken hiri honetako Euskal Erakustegiko Liburutegian hala nola zenbaiten liburutegi partikularretan itzalean orain diratelarik.

Idazlan hauek antzina-antzinatik datorren ohitura bat jasotzen dute, alegia, herri batean ezkontza ohizko legeetatik at gertatzen zenean, hau da, bigarren, hirugarren edo laugarren aldiz norbaitek ezkondu nahi zuenean, edo zahar baten eta gazte baten artean ematen zenean, edo zena zelarik, senar-emazteek nolazpaiteko etsenplu txarren bat agertzen zutenean, herriko gaztediak antolatzen zuen ikuskizuna. Senar-emazteak bi astoren gainean aitzin-gibelka ezarririk eta bridatzen isatsa hartuz herriko kaleetarik iraganarazi ondoren, plazara eramaten zituzten eta bertan antzezkizun bat eraten zuten bikotearen lepotik irri nahi adina eginez.

Antzerti hauek bazeukaten, beraz, alde batetik ohitura gaiztoak gaztigatzeko helburua, eta bestetik jaiarena, libertimenduarena. Nola bai Elizak eta bai Parlamenduak alargunduen ezkontza berriak onartzen ohi zituzten, asto-lasterrek agintearen eskuzabaltasunaren aurka altxatzen zen funtzio mugatzaile eta herskor bat betetzen zuten, ordezeko eta kitatzeko egitura batzuen moduan. Honela, ezkontza debeku eta oztopatze hauen nondikakoak eta inguruan agertzen diren erritu zenbait aztertuko ditut. Ezteietako formulak, ezkontza kontratuetako baldintzak, eta batipat, senar-emazteen arteko liskarrak eta haserreak, familietako gorabeherak, haur galerazteen, haur bastarten, dibortzioen, adarren arazoak eta beste.

Gaztediak, beraz, guzti hau gaitzesten zuelarik idatzirik gabeko eta antzinate urrunetik zetorkion legedi bati jarraikiz etsenplu salagarriak, txarremaileak gaztigatu egiten zituen, era berean libertimendurako parada aurkituz. Lehenik, bikotearen leihopetan koblakarien ahapaldi zorrotz eta zitzakorrek kantatzen zituzten tut eta turuten hotsez lagundurik, gero herriko plazan antzezkizun irriarri bat pairarazten zitzairen eta azkenik, erritu garbitzaile batean, batzuetan herritik akazatzen ziren, joanaldian utzitako urratsak lasto xorta suztatuz erreaz.

Aukera izango dugu erritu eta zeremonia hauekin batera aztertzeko garaiko ogibideak, ofizioak eta lan egoerak, jan-edanak, uste eta sinesteak, jokoak, hala nola gizarte poliglota bateko hizkera ezberdinen funtzionaltasuna. Ez ditut ahanztiko, noski, ikuskizunetako jazkerak, dantzak eta musika, eta batipat hizkuntza eta literatur ikuspegitik dituzten balio ukaezinak.

Azkenik, XX. mendean tobera eta maskaradetan pairatu duten bilakaera eta aldaketa ikusiko dugu. Nola urteekin helburu batzuek galtzen, ezabatzen, eztitzen eta aldatzen joan diren eta beste batzuek agertzen. Halaber ikusiko dugu, gaingiroki bada ere, nolako eragina izan duen irri teatro honek egungo antzerkigileengan, amaitzeko gaiari dagokion bibliografiarekin.

## 1. IZENEZ

IZENA duen gauza orok izana duenez, edo bederen izanaren itzala omen denez, has gaitezen ohi denez aztergaiaren izenen azterketarekin, hau uste baitugu dela lehen urratsa barne muintetara iristeko. Europa osoan, eta etnologoek dioetenez, beste kontinenteetan ere ezagutzen den ekintza eta erritu hau izen ez-berdinez izendatzen da. Honela, frantsesez *charivari*, gaztelaniaz *cencerrada*, italieraz *escampanata*, alemaneraz *katzenmusik*, ingelesez *rough musik*, katalaneraz *esquellotada*, okzitanez *calhabari* eta beste hizkuntzetan beste izen anitzez ere deitua eta ezagutua da ezkontideen inguruan herriek antolatu ohi dituzten ospakizun eta jai bereziak. Euskaraz ere, nola ez, izen ezberdin anitzez izendatu izan baita, dituzten xehetasunak aztertuko ditugu hemen, orain, xehero.

*Charivari* hitza da darabilena Jakes Belakoak, Mauleko abokata protestantak XVII. mendean *Tablettes Juridiques* delako eskuzkiribu batean, eta gurean ezagutzen dudana lehen aipamena denez gero testu osoa ekarriko dut hona, itzuliz:

Astolasterrak (*Les charivaris*, dio) gaez jokutzen dira gehienetan, zarata eta zalaparta, sartagin, eltzegor, tupinautsi, pertz, joale, adar, tut eta turuten hots eta dunbotsen artean, zuzi izeki eta gora jasotakoan distiren pean, leku garai batzuetatik irrintzinak nahastakatuz boza ozenez eginiko solasak izaten dira, bigarren eta hirugarren aldizko ezkontzen –antzinako Platearenak bezalakoen– irrigarri.

Eta orain Basanafarroako Donapaleun ematen ari dira bigarren edo ondorengo ezkontzak aitzakiztat hartuz. Hainbestez, Arbasoek uste baitzuten llargiak, ezkontzak gidatzen zituen zuzen gero, bigarren edo hirugarren ezkontzak gorrotatzen zituela, xaribari zirenez ez zedin ohar, halako buila eta iskanbila sortzen zuten.

Eta antzina, esposatu aitzin ohitura omen zen ezkontzetan sakrifizioen bitartez Diana balakaztea, hau neskutsenez ezkontzak higuintzen zituela uste baitzuten.

Eta xaribaria, ezkontideen irrigarri egiten denean gora emaniko solasez, gaizki dago ere, ez baita onegitearen ondorioz, aldarrikatu behar ez atera buila eta zalapartarik.

Eta hau egiten dutenek Mauritaniako Atlas mendikateko deabru eta aker-gizonak dirudite, hauek, egunez ez nabarmendu arren, gaez ikus baitaitezke argi distiratsupean txistu, joale eta danbolinen hots eta doinuekin batera.

Beraz, arrazoi guzti hauengatik legegizonek xaribari gileak auzitara eraman beharko lituzkete.

Itzuliko gara behin baino gehiagotan aipamen honetara, baina oraingo zuzen bego hortan. *Charivari* hitza Dauzat jaunak dioenez [1971:155], lehen aldiz XIV. mendean agertzen da eta behe-latinezko hitz batetik omen dator, *chalivalitik*, hain zuzen, eta hau halaber *karebaria*, buruko mina esan nahi omen duen grekar hitzetik. Honen aldaerak maiz agertzen dira, bai *La Farce du Maître Pathelin* antzerkitxoan, bai Rabelais-en Gargantua et Pantagruel eleberrian, bai frantses literaturaren Erdi Aroko testu ugarritan. Rey-Flaud astolasterren ikertzailearen ustetan [1985:90] hitzaren jatorria ehizari loturik legoke eta berez hots onomatopeikoz eraturik litzateke xaribari. Du Cange jakintsu ospetsuak ere bere hiztegian [1678], honelaxe definitzen du xaribaria: soinu eta garrasi ezberdinen artean bigarren aldiz ezkontzen direnei egiten zaiena joko lizun bat.

XIX. mende hasierako eskuzkiribu batean hitz lauz ematen da antzerkiaren gaia eta honelaxe dio, espreski, *sujet dun Charibary*, adierazpena xubereraz ematen duelarik. Astolasterrak hitza darabilkigu, ordea, saio honen deituran hau gurea dugulako etorkiz, *charibari* arrotza den bitartean, frantsesetik hartua, noski, eta egun aski hedatua den arren. I. Sarasolak honela aipatzen du bere hiztegian: *Asto Lasterrak (\*1857, 1922), Xaribaria, Zuberoako antzerki mota*.

Lehen data, noski, Francisque Michel-en liburuarena dugu, baina honek berak beste aldaera bat erabiltzeaz aparte, hots, *astolasterkak*, zertan dautzan eta nola antolatzen diren edo, hobe esan, ziren adierazten digu [1857:55-57]. *Bala eta Bilota* izeneko astolasterrean, –halaber, *Juanik Hobe eta Arlaita* astolaster barnean aurkitzen denean– eta 1788. urtean, hain zuzen, jokatu zirenetan, biak Olhaibin, era berdinarekin izendatzen dira:

*Jakiten badie gazteriak  
astolasterkak eginen dutie  
oro desuhuraturik  
jarriren beitzirie.[34.b.]*

Saroihandy ikerle ospetsuak eta euskal antzertiaz arduratu zenak 1916. urtean Santagraziko Hondagnen estatuan 70 urtetako eta Margarita izeneko atso baten ahotik izen bera jaso zuen, iragarki bezala har dezakegun bertso honetan:

*Si bou boules crede  
Aqueso qu' ey bertat  
Igantian dirate  
astolasterrak.*

Betri Urte, idazle donibandarrak, bere aldetik Londresen 1715. urte inguruan idatzi zuen hiztegi, latinezko asinaria hitza itzultzerakoan *astobastakomedia* darabil [1989:175], beste batetarako uzten dugularik Plautoren *Asinaria* deritzanak xuberotar komediekin duen antza eta ezberdintasunen azterketa.

Astolasterra, jaiaren eta ikuskizunaren zati izatetik, hau da, bikote gaztigatua herrian zehar asto gainean atzekoz aurrera isatsari heldurik ibilaraztetik, ekintza, ikuskizun osoaren deitura izatera iragan zen, metonimia erretorika irudiaren legez. Jai eta antzekizun honen zenbait parte beste izenez ere ezagutuak dira, hala nola, *galarrotsak*, *karrosak*, *tobera-mustrak*, jarraian aztertuko ditugunak.

*Galarrotsak* hitzarekin aipatzen du, hain zuzen, 1807. urtean Arueko herrian antzeztu zen *Malkus eta Malkulina* astolasterrak, halaxe:

*Nun eta ezkitien  
arrazuableki phakatzen,  
ikhusiren tik triate gainen  
galharrotsak egiten. [21.b.]*

Halaber, gazte batzuek joango zaizkionean Manex Etchamendiri galarrots batzuen ospatzeko baimenaren eske 1912. urtean, honek Toberamunstra batzuez izeneko bertso batzutan kontatzen dizkigu zein diren bere arrazoiak astolasterrak galerazteko, eta bi hitzok darabiltza sinonimo edo berdinean bezala: *tobera-munstrak eta galarrotsak*.

*Bi mutiko jin zauzkit  
bertsu berri galdez,  
Tobera-munstra batzu  
muntatu beharrez;  
Sujeta zen auzoko  
bi senar-emaztez...  
Bainan, gizonen gizon,  
erran deiet ezetz.  
Galarrotsak eskuaraz  
egiten direla!  
Usaiak begiratu  
behar ditugula. [1972:104]*

*Galarrotsak* hitza Lhandek bere hiztegian Basanafarroako hitza bezala ematen diguna, ikusi dugu Zuberoan ere ezaguna eta erabilia zela. Lhanderentzat GAL- da hitzaren lehen zatia eta zerkusirik badauka *gare, goare joare* aldaerekin. Bigarren partea –ARHOTS da, beraz, 'bruit de sonnettes', 'charivari' bezala itzultzen digu. J. M. Iribarrenek bere aldetik, honela definitzen ditu galarrotsak bere hiztegian:

GALARROSA, nombre vasco, contracción de *gare o gale* (campana o esquila) y *arhots* (ruido o alboroto), con el que designan en Valcarlos a los vituperios públicos llamados *cencerradas*. La galarrosa no es una *cencerrada* con *batahola* de esquilonos y estruendo de cacharrería. Lo fue antiguamente. Hoy se reduce a un diálogo que mantienen, de noche y a distancia, dos cuadrillas de mozos, y en el que sacan a relucir los líos y trapos sucios del «homenajeado». [1984:264]

Gaur egun ere Hazparden antolatzen diren euskal antzerti topaketek izen bera daramate: Galarrotsak. Hasieran jaiaren zati bat soilik adierazten zuten arren, bikotearen leihopean egiten ziren hotsak eta kantatzen ziren koplak, gero astolasterrak bezala metonimiaren lege emankorren bitartez, partea orotasuna adieraztera iragan zen.

*Zintzarrotsak, zintsarrot, zintzerroak jo*, hitz eta esaldiak bezala hedadura zabalenetari-koa du eta izkribu zaharrenetan agertzen zaigu, Arnaud Oihenart historiagile eta poetak bere atsotitzen bilduman ere aipatzen baitzikigu: *Soinuac deraunsano / Sintsarrotsa ioralterano*. [1657:38]

Hona hemen zein ingurutan agertzen den zintzarrots hitza gaztediak 1918. urtean kantatutako *Peyrot eta Peyrotina* goitzeneko eta Leopoldo Irigarayk bildutako koplak batzuetan:

*Tzintzar eta tzintzarrots,  
tut eta tutots,  
Jaun erretorak erran dereiku  
egin ditzagan gai oroz.*

Kasu bitxi eta aparta gainera, ezen hemen dirudienez zintzar-hotsak paratzera gaztediak bultzatu zuena apezka izan baitzen. Corominas-ek dioenez, badirudi hitza onomatopeikoa dela, eta astolasterrak adierazteko gaztelaniaz darabilten *cencerrada* eta *cencerro* hitzen etorkian legokeela [1973:144].

Joare, zintzarri, ttuntturro, zanpantzar dira aziendak lepotik zintzilik zerabiltzan hots tresnak eta gero astolasterretan eta ihauterietan gazteek bereganatzen zituzten soinugileak. Zanpantzar hitzak, era berean, badu hizkuntza aldetik interes berezirik. Frantsesetik datorren hitz bat da, Saint Pansard-etik hain zuzen, eta ihauterietan parte hartzen duten bai Ituren eta bai Zubietako gazteak horrelaxe deitzen dira: *zanpantzarrak*. Hauek, gelditu gabe dabilta zintzarriak zangoetan eta bizkarrean zintzilik, dantza antzeko ibilaldian, batetik bestera.

Zanpantzar izenarekin ezagutzen da ere zenbait herritan ihauterietan agertzen den irudi irrigarria. R.M. Azkuek Orion eta Lekeition bildu zituen bertsoetan honelaxe aipatzen dira:

*Gaur dala Maria Kale  
biar dala Zanpantzar,  
egin dezagunarte  
tripan larruak zart.* [1973:34]

Ihauterietako pertsonai nagusia, alegia, sabela saildu bilakatu, Zanpantzarra jokatzeari 1571. urtean Joana Albretekoak debekatu egin zuen erromatarren garaietako superstizio eta idolatria zirela pentsatzen zuelako. Rabelais-ek ere aipatzen digu Zanpantzarra bere umore eta irri bereziaz eliza testuak parodiatuz, *ventrem omnipotentem* zuela adieraziz. Honen kontrafigura Bethiri Santz da iparraldeko folkloean, miseria, alegia, Orixek *Euskaldunak* poeman Petiri Dambolin bataiatzen duena honako bertsootan:

Ni naiz Petiri Danbolin  
gosea dakart nerekin,  
nik jotzen diet goserik ere  
denari soñua berdin [1950: 495.b].

Karrosa hitzaz Iribarren berak dioenez, Luzaiden erabiltzen ohi zuten hitza omen, gizaki zigortuak, astolastergai ziren senar-emazteak antzekizunera astosail luze batek karrosa batean eramaten baitzuten:

CARROSA. En Valcarlos llaman carrosa o karrosa a una pantomima o farsa teatral, en forma de juicio, que tenía lugar sobre un tablado en la plaza pública, y cuyo objeto era satirizar determinados sucesos de la vida local, sacándolos a pública vergüenza. La última «carrosa» tuvo lugar el año 1930.

Hitz bera agertzen zaigu ere 1766. urteko testu batean Ortzainen urte horretan ospatu zen antzekizunean, eta M. Oxamendi koblakari gazteak *Alegiako Aphezpikua* goitizenez ondu zituen bertsoetan:

*Hortarako  
karrosa bat du preparatzen,  
Karrosako  
zortzi abre maiatzeko  
Aragoan ditu bilhatzen  
herrian ederrik ez baitzen  
Hortarako.*[Urkizu, 1987:112]

*Tobera-munstrac, c'est-à-dire d'un charivari représenté* dugu Michel-ek ematen digun beste hitza, eta Azkuek halaxe biltzen ditu bere hiztegian, esanez, zenbait herrixkatan gaizki konpontzen diren edo berriro ezkontzen diren alargunei antolatzen zaizkien hots, bertso eta kantak direla. Piarres Larzabal, euskal antzerkigilerik emankorrenak ematen digu ere bere aldetik iritzia, honoko hitzotan:

*Ziberoan eta Baxenabarren, aspaldiko urtetan eta berriki artio, emaiten zituzten antzerkierako bi ikusgarri mota: tobera mustra eta antzerki labor gazi batzu.*

*Tobera mustrak muntatzen ziren ezkontza gaizki erabiltzalen trufatzeko.*

*Ikusgarri larri ausartak, errabia piztaleak, maizenik emanak ziren pertsulari, dantzari eta zaldizkaden laguntzarekin* [1966:210].

Hitzaren lehen partea ez da soilik iparraldean ezaguna hegoaldean ere aski erabilia eta ezaguna da, eta eztei-eresiekin, loturik dago. Berez, Manuel Lekuonak dioen bezala ferrole-tan erabiltzen zuten erraminta zen, *tobera o tubo de bronce que formaba parte de la fragua de la ferrería, y servía para introducir el aire que avivaba el fuego donde se fraguaba el hierro*. Txomin Peillenek toberak direla eta eztei-eresi hauek Eske pertsuen bilduma batean ematen dizkigu, bai Orixek eta bai Lekuonak bildutakoak berrargitaratzen dituelarik, esanez:

Ezkonduerik gazte talde batek tobera-pertsuak esaten ditu; tartean toberak (burdin barrak), tobera jotzaileak jotzen dituztelarik. Baliman lehenago txalapartak tobera jo, tupinitsuak kobleen artean jotzen ziren. Ohitura hori Nafarroa Garaiko da [1976:69-73].

Nabarmena da, bada, nola, zenbait herritan ferrole-tako tresnak erabili ordeztu, abereei kendutako zintzarriz laguntzen zituzten koplak, eta kantei antzekizun batek jarraitzen zien. Oraindik gelditzen zaigu astolasterrak adierazteko zenbait hitzen aipamena, alegia, *thupina-utsu, fartza* eta *trajería*.

Michel-ek dioskunez [1857:57], tupina dugu lehenik azaltzen omen dena, 1313. urtean Lizarrako herrian eman omen zena, hain zuzen. Baina, ematen digun iturria aztertuz, hau da, Yanguasen hiztegia, ohar gaitzke bertan aipatzen dena, *tres topinas de aranbre*[1964:320], dela soil-soilik, eta esaldiak adierazten duen gauza bakarra garai hartan zerabilatzaten erraminta, topina, thupina edo eltzea da, besterik gabe, hots, inolazko antzekizunuen aipamenik gabe. Hitza, noski, toberaren kasuan bezalaxe erromanikoa da, Perigord lurraldekoek *toupi* badarabilte eta Beaujolais aldekoek *tupin*, eta berdin nafarrek Iribarrenek bere hiztegian diotenaren arabera, besterik ez baita, *Tupin, cacerola de porcelana*.

Zalgizen 1769. urtean *Richar de Normandie* pastoral barnean antzeztu zen *Petit-Jean eta Sebadina* astolasterrean "zambomba" hitza itzultzeko erabiltzen da eta pertsona baten irudi laidozaille gisara:

*Ezi zuk iduri duzu  
tupina utsu bat zirela. [590.b.]*

Zentzu berdintsuarekin darabil ere koplariak Ezpeletoke herrian 1828. urtean egin ziren toberetan, aipatzen digunean atso bat saltsa guztietan sarturik zegoela: *tupina guzietako burruntzali*.

*Thupina-utsua*, beraz, zintzarrotsekin eta joareekin gaztediak astolasterretan zerabilen beste soinu lanabesa genuke, eta ez propioki antzekizunarena. Turutak eta tutak, bere alde-tik, ere hitz onomatopeikoak ditugularik adar soinuaren hotsa adierazten dute astolasterra egitea erabakitzen zenean jotzen ziren tresnak zirelarik. Hauetako batek emango dio antzekizuna pairatu zuen bati pertsonai izena, Turut-Arrosa, egituraz zintzarrotsa eta galarrotsaren pareko dena eta Sarako herrian 1820. urte inguruan parte hartu zuena tobera batean, bertan saratar gazteak Donapaleukoak eta Luzaidekoak lagun zituztela, eta Piarres Adame koblakari famatua bertso paratzaile.

*Fartza* hitza, berez, frantses etorkikoa da, agerian denez, eta frantsesa halaber, behelatinetik datorrena duguna *Malkus eta Malkulina*, gorago aipatu dugun astolasterrean, hone-laxe aipaturik aurki daiteke:


*Nik aldiz fartza bat  
propirik jokhaturen. [515.b.]*

Beraz, otorduetan fartza betegarritzko zerbait gertatzen bazen eta analogiaz frantses misterioetara zentzu horrekin iragan bazen, Zuberoan, zenbaitetan ez zen pastoralen barnean atsedengarri zitekeen zerbait bezala ematen, astolasterren, galarrotsen eta horrelakoetan esanahi berdintsuarekin 'triate gainian' jokatzeko ziren eta errepresentatzen ziren, *Juanik Hobe eta Arlaitaren* kasuan bezala, hura prestatzeko astirik ez zutelako izan:

*Pastoral bat ezin eginez  
hau representatu dugu. [142.b.]*

Izen gehienak, garbi ikus dezakegunez, metonimikoak dira. Bada bat alderantzizkoa, ordea, trajeria, Greziatik datorkiguna, eta antzerki mota ezberdinak izendatzeko balio izan duena Zuberoan eta Basanafarroan. Alegia, hemen hitz berarekin izendatzen zituzten, zenbaitetan pastoralak eta ihauterietako trajikomeriak, hala nola astolasterrak, ukitzen zituzten gaiak ezberdinak ziren arren, bai egituraz eta bai antzezteko moldeaz berdintasunik zituztelako. Hala, Jakes Oihenarte, Uharte-Amikuzeko errejentak Larribarren 1848.ko apirilaren 30ean jokatu zuenean *Kaniko eta Belxistine*, ondorengo bertsolerrotan irakur dezakegun bezala, trajeria hitza darabilligiu, ondo baino hobeto jakin arren ez zela nigarra, irria baizik joko, antzekizun haren helburu nagusia:

*Trajeria hunen uhuretan  
erakarri tugu feitak. [14 b.]*



Fartsa baten antzezpena Holandan (XVI. mendea).

## 2. ETORKIAZ

IDAZLE guti arduratu da astolasterrez eta bere etorkiaz. Nondikakoaz eta noizkoaz mintzatzerakoan aski izan dute gainera esatearekin, Euskalerriko ohitura zaharrenetarikoa eta bitxienetarikoa dela, edota bertan parte hartzen duten dantzarien aideak oroitezinezko garaletatik datozen aide finkatu batzuek direla, xaribari bat Bidarraien 1909. urtean ikusi ondoren, Gabriel Roby margolariak bezala:

Et c'était chose admirable de voir de simples paysans, calmes comme des dieux, légers et souples comme des chats, silencieux et graves en dépit de leur déguisement, sauter et marcher en cadence au seul bruit de leurs sonnailles, cependant que trois pauvres instruments exécutaient des airs fixés depuis des temps immémoriaux. [Biarritz..., 2-IX-1909]

Ildo berdinetik eta gogoeta berdintsuak eginez dabilkigu Jean lthurriague bera, herri literaturaz diharduenean, [1946:164] emaitza hauen sortze garaiazen data zehatza ezin daitekeela ingurutik ere eman, dioenean.

Bestaldetik, zeharo ezberdin izan dira zenbait literatur kritikariren iritziak. Hala, Jon Juaristik kritikoa eta mito desegile izan nahi duen euskal literaturaren ikuspegi berezi batean, aipatzen duen bibliografia axaletik soilik irakurri duela agertuz, zeren eta Desplaten *Charivaris en Gascogne* delako liburua aipatzen digun eta bertako atarian irakur daitekeen



Jakes Belakoak egiten duen XVII. mendeko astolaster baten agerpen eta gaitzestea, esaten digun: *Posiblemente la tradición teatral de Soule podría remontarse a los siglos XVI o XVII, pero no existen noticias de la misma hasta finales del siglo XVIII.* [1987: 27]

Hots, XVIII. mende bukaerarte Zuberoako antzerti tradizioaren albisterik ez dela aurkitzen. Pentsamendu berdintsua adierazten digu Beñat Oihartzabalek, aski ongi ezagutu arren eta barrendik tradizioa, zuhurregi ikusi dugun bezala, jotzen ditugun hitzotan:

Zuberoako teatro herrikoa noiz hasi zen neke da beraz erratea, 18. mendean egina zela ez da dudarik; aitzinagokoa izan zitekeela ere pentsa daiteke. Baina zenbat urte gibelera joan gaitzke? 17. mendera itzultzeak ez du zentzugabekeria iduri, –zeren, berriro derragun, 18. mendearen erditsuan tradizioa finkatua dela baitirudi. Zenbat urte behar izan dute zuberotarrek ohidura horren –ohidura gisa– beren herrian finkatzeko? –Gorago joatea ordean, ausartzia handiegi ez ote litzateke? [1985:68]

Ez dut uste, egia esan, ausartzia datekeenik ondoren adieraziko ditugun datuen arabera, zaharragoa dela tradizioa esatea, eta bai, alderantziz, Juaristiren bideari jarraituz A. Garamendik esaten diguna inongo barne ikerketa sakonik gabe, pastoralara «colportage» delako liburuetatik datorrela eta hala trajikomeriak nola astolasterrak azken finean XVI. eta XVII. mendeetako ihauterietako frantses antzerkietatik [1987:25], alegia, ondorioztatuz Zuberoako antzertia arrotza, kanpotik sartutako zerbait dela. Ikusten bada, eta hau ongi frogatu dute etnologo eta antropologok, astolasterren fenomenoa ez dela Frantziakoa bakarrik, Europa osokoa eta beste kontinenteetan ematen den kultur emaitza, froga argiagorik gabe horrelako ondorioetara iristeari benetan arriskugarria deritzogu. Saio honen helburuetatik bat zehaztasun eta argitasun pittin bat bederen, datu zehatz batzuen eskutik eta lekukotasunarekin itzaltze eta delako hutsune horretan ezartzea izan dut.

Hala, eskuzkiribuek ematen dizkiguten lehen data zehatzak hauexek dituzu.

1766. Hortzaizen, M. Oxamendik karrosa baten koplak idatziko ditu, *Alegiako Apehezpikua* goitizena dutenak, hain justu.

1769. *Petit-Jean eta Sebadina* izeneko astolasterra Richard Bildurgabe pastoralaren barnean antzeztu zen Zalgizen.

1788. *Bala eta Bilota* deiturazko astolasterra *Juanik Hobe eta Arlaita* izenekoarekin batera antzeztu zen Olhaibin.

XVIII. mendekoak dira inongo dudarik gabe Campan-Latsague izenpean diren bilduma- eskuizkiribuen kopiak, egun Baionako Euskal Erakustegiko liburutegian edireiten direnak.

Baina, jakin, badakigu inongo dudarik gabe testu hauek askoz ere lehenagoko ohitura bat jasotzen dutela, eta bere lehen adierazpen idatziak direla. Murgil gaitzezen bada antzinasun honen ilunbeetan ikerle fidagarrien zuzi izekiaz eta argiaz.

Julio Caro Barojak, adibidez, Nafarroako gorteek 1724. eta 1726. urteetan zintzarrotsen eta kanta lizunen aurka eman zituen aginduak eta debekuak aipatzen dizkigu. Baina, dirudienek arrakasta gehiegirik gabekoak izan ziren, debekuak berriro errepikatu beharrean aurkituko baitira 1743, 1744, 1765, 1780 eta 1781. urteetan [1980:200]. Hona hemen, adibide gisara, debeku hauetako baten zatitxo bat, xuxen-xuxen:

Arrêt du Parlement de Navarre, du 3 mars 1769... le sieur d'Elissalde avocat général portant la parole, qu'en contravention aux ordonnances royales et arrêts de règlements de la Cour, il se forme dans la présente ville des attroupements nocturnes, sous le nom de charivari, contraires au bon ordre, au repos et à la liberté intérieure des familles. [Desplat, 1982:270]

Alegia, gau biltzar eskandalagarri hauetan parte hartzen zutenak gaztigu gogor bat merezi zutela, etsenplu bezala balioko zuena, eta aginduaren iragarkia behar bezala moldiz-tegiratua, argitaratua eta zintzilikatua behar zuela izan.

Beraz, argi eta garbi dago tradizio baten gaitzeste aintzinean aurkitzen garela. Txomin Peillenek "Euskal Antzerki Zaharrenak" izeneko artikuluan azaltzen digu XVIII. mendeko xuberotar filosofo, Josef Egiategiren arbuioa, alferkeriaren aurkako kapituluari, gaztediak lana maitatu beharrean bestetan eta pastoraletan soilik omen zuelako gogoia ezarririk:

*Eta zū aita, aspaldian ikhusten eztūzia zure semia dela auhertū? Lana diala hūgūnt, merkhatu, eliza besta ta pastoralak bakoitzari hūtsik egiten eztiala. [1983:200]*

Christian Desplat-ek, bere aldetik, astolasterrak aipatzen dizkigu bidenabar, Euskalerriko familia eta gizartearen baitan ediren daitezkeen debeku eta lege moralei buruz idatzirikako lan batean, xehero ematen dizkigularik bai Elizak eta bai Parlamenduak plazaratu zituzten aginduak. Adibidez:

a) Nola 1753. urtean J. de Révol, Olorongo apezpikuak debekatzen eta mehatxatzen zituen elizaren graziatik at uztearekin toberak, astolasterrak, maskaradak, pastoralak eta beste eratako istiluak sortzen zituzten parropiak.

b) Nola Zuberoako ordenamendu batek 1695. urtean agintzen zuen ez zedin handik aintzina astolasterrak haboro joka.

Garai berdintsuan, hots, XVII. mende bukaeraldean Marie d'Aulnoy-k egin zuen bidai bat Espainiara eta bertan gertatu zitzaizkion gorabeherak kontatzen dizkigu [1691], nola, Baionatik irteterakoan Saint Antoine izeneko atetik, xaribari bat pairarazi zioten eta eskaini baionesez, bere borondatearen aurka, noski. Kasu honetan xaribari hitzak, ordea, ez du antzekizunaren zentzua, baina bai buila, garrasia, zintzarrotsarena eta honek suposatzen zuen zerga eta gaitzespena.

Irakurri dugu gorago, hasierako aipamenetan hain zuzen, nola Jakes Belakoak (1586-1667) lege gizonei ematen dien agindua galeraz ditzaten eta gaztiga astolastergileak, une hartantxe Donapaleun jokatzeko ari zirenak aitzakitatz hartuz.

XVII. mende hasieran Pierre de LANCRE, oroitzapen gaitzoko inkisidoreak, Bordeleko Parlamenduko epaileak, bere ekintza sarraskitzaile eta garbigarriaren berri liburu bitxi batean eman zigun. Zoramen berezi batez orniturik zegoelarik, beretzat Lapurdiko hiritar gehientsuenak sorginkeriaz kutsaturik baitzeuden, su garbitzaitetik iraganarazi zituen bost hilabetetan zazpirehun pertsona baino gehiago, haurrak, andereak eta apezak ere libratu ez zirelarik sugarretatik. Kontatzen digu, bada, beste gauza askoren artean, nola garaiko euskal gaztediak edozein aitzaki on zuen beren jaialdi eta dosteta orotan «abbe de Maugouver» delakoa antolatzeke [1610, reed. 1982:85].

«Mau Gouver» hitza, laburdura bat da, noski, eta bai Biarno aldean bai Frantziako hegualde osoan honela deitzen ziren *Abbayes du Mauvais Gouvernement*, Gobernu Gaitzoko Abade delakoak, eta izen honekin ezagutzen ziren elkarte alaiak, Erdi Aroan eta Errenazimendu garaian astolasterrak eratzen zituztenak, hain zuzen, Henry Rey Flaud-ek ongi dioen arabera.

Beste ikerle interesgarri eta sakon batek, Le Roy Ladurie izenekoak, elkarte eta talde hauek nola eratuak zeuden Romans hirian xehetasun guztiz kontatzen digu [1979: 326]. Honela bada, gizonezko gaztediak, ezkonduak eta ezkongaiak, 18 urtetik 38raoko guti gora behera osatzen zuten abadia. Bertan, batzuek fraide ziren eta nobizio besteak, alegia, zaharrenak ziren lehenak, eta gazteagoak bigarrenak. Zuzendaria abade nagusia zen eta berrogei

urte inguru zeukana. Diruzaina, ia beti pertsona bera izaten zen, eta ez zen aldatzen, bere egitekoak zirelarik: antzezkizunetako eta jaialdietako oholtegiak arduratzea, bost edo sei musikari –xirribitariak– aurkitzea, eta beste. Eguberrietatik lhauteriak arteraino antolatzen ziren dantza eta maskarada guztiak haren gobernu pean zeuden, eta hark zuzentzen zuen ere gaztetxoek karrosen ibilaldia. Gauza guzti hauetarako bi dirubide zituzten, bata, herrian zehar eginiko eskea, eta bestea, ezkontza berriek udalari ordain behar ziotenetikako zati bat.

Beraz, Gobernu Gaiztoko Abadeak ziren herriko festak, antzezkizunak eta jaialdi askoren antolatzaileak, eta G. Hérelle, euskal pastoral eta astolasterren ikerle handienetarikoa dioenez [1925:97], De Lancreren lekukotasunak agertzen duen bezala, segurua da Euskal Herrian bazirela honelako taldeak, aipatutakoen gisara jai antolaketak erabakitzen zituztenak, nabari delarik ere gaur egun, hau da, duela menderdi bat, nola, antolatu behar zenean zerbait, euskal gaztediak aurkitzen zuen berehala antzinako elkarteen dostetarako eta libertimendurako jaidura hori, eta nola XX. mendean Erdi Aroko tradizio zahar haiek biziarazteko, plazaratzeko gai zen.

Antzinasun honen barne frogak lirateke, adibidez, astolasterretan ageri diren arbasoen usuario zenbait, benetan kutsu zaharra dariotenak, hala nola garbiketa errituak. Hauetarik katu erretzearena da bat. Gorago esan bezala, astolastergaien etxe aitzinean paba luze batean eskegirik katu bat lastoz inguratzen eta erretzen zuten, honen marru hunkigarriek ez zituelarik uzten senar-emazteak loak har zitzen. Bestea, herritik bidaltzearena. Senar-emazteak herritik akazatzen zituztenean, bere ihesaldi bidean utzitako urratsak lastoz erretzen zituzten astolastergileek, *Rekokilart eta Arieder* izeneko antzerkian agertzen den bezalaxe:

*Eta inkas berak  
ezpadira herritik partitzen  
lastoz herexa erraerazirik  
ditugu bertan akazaturen.* [830. b.]

Antzeko ohitura bat, baina politika munduarekin lotua adierazten digu Webster ingeles euskalzaleak, kontatzerakoan nola XV. mendean, 1477. urtean zehazki, Nafarroan Fernando erregeak Iruñeako apezpikua Bizkaira eraman zuenean foruen usadioak agintzen zuenaren aurka, herritarrek haserreturik haren urratsak lastoz erre eta ondoren errautsak bildurik, superstizio zahar baten arabera, jainko paganoen ohoretan itsasora bota zituzten.

Erritu aratzaile eta garbitzaile berdintsua ediren daiteke lhauterietan, Phantzarten eta Bakusen irudiak Hauster Egunaren bezperan su eman ondoren errautsak Baionan Errobi ibaira botatzen ohi zirenean.

Zeremoniak eta antzezkizunok oso hedatuak zeuden Frantzia guztian Erdi Aroan, eta hau horrela zela behin eta berriro adierazten digute Kontzilioetako debekuek, Lebrun-ek [1981: 221] xehero zerrendatzen dituenak galerazte horietaz eginiko lan batean, Lyon-en 1321. eta 1326. urteetan emanikakoekin hasiz. Berdinki George Hérelle-k Lalou-ren idazki bati jarraikiz, aipatzen dizkigu Agen-go (1269), Reims-ko (1330), Avignon-go (1337) eta beste hirietako debekuak.

Baina Elizaren debeku hauek izan aurretik, astolasterrak neurri batez lege ez idatzi zenbaiten fruitu eta ondorio ziren, hala nola pilota eskubidearena. Honen arabera berrezkontzen zen alargun orok, edota ezkondu arrotz guztiek, bere senarraren herrian zerga bat ordaindu behar zuten. Zerga hau Rosellon-en 1300. urtean Jaime Lehenak ezabatu zuen eta Provence aldean Iraultza Frantsesak 1789. urtean. Ipar Euskal Herrian, ordea, hain zegoen erroturik eta sustraietaraino sarturik ohitura hau gaztediarengan, non aginte zibilaren baimena lortzen zuten antzezkizun hauek antolatzeke eta ospatzeko. Hala 1848. urtean

Louis-Napoleon Bonapartek Heletako gaztediari baimena eman zion nahi adina jolas eta irri egin zezan hautaturiko sujetaz, alegia, agure eta neskato baten arteko ezkontza eskandalagarri baten lepotik.

XIX. menderdian aginte zibilaren eskuzabaltasun honek bazuen Erdi Aroko usadioan lege oinarririk. Adibidez, Analriko Credomiokoak, Vasconiako lurraldeetako seneskalak 1315. urtean latinezko izkribu batek dioenez, ohiturari jarraikiz norbait adulterioan edireiten bazen, astolaster antzeko zerbait paratzeko eskubidea legeztatu zuen hitzokin: *currant villam secundum quod est fieri consuetud ...* [1962:474]. Eta ez bazuten nahi hutsegileek astolasterrik presta zedin, zerga batez kitatu behar zuten beren hogena, horrela aske gelditzen zirelarik astolasterria pairatzeaz, hau da, hamar libera ordainduz, zeinetarik bost erregearentzat ziren eta beste bost herriko juratuentzat.

Astolasterka hauen adibide gehiago ematen dizkigu Rey-Flaud-ek bai egunekoak, bai antzinakoak. Esate baterako, kontatzen digu, nola Greziako *kallikantzaroi* delakoak sartzen diren herrietan astogainean eta astaburu handi eta izugarri batzu daramatzaten maskara gisara; eta nola 1131. urtean Nepi-n Napoles ondoko herriskan egin zitzaizkien astolasterrik senar-emazte arau hausleei. Halaber, nola Petrus, Jean XIII.aren (965-972) kontraitasainduari aurka altxatzeagatik gaztigu berdina pairarazi zitzaion.

Nola iritsi zen, bada, ohitura zahar hau Erdi Aroan Zubero aldera? Antzinatea inork ez dio ukatzen, Hérèlle berak aipatzen baitu Plutarko grekarrak jadanik K.o.go I. mendean ezagutu zituela eta deskribatu, alegia, nola gaztigatuak herriko plazetan populuaeren epaiketaren aurretik, atzekoz aurrera astogainetan ezarririk, isatsa brida gisara hartuz, epaituak izatera zihoazenak kaleetan zehar iraganarazten zituzten.

Oraindik areago dihoakigu Rey-Flaud astolasterren nondikakoak eta etorkiak ikertzera-koan, zenbait mitorekin batzen baititu, erritua ez dela soilik erantzun hutsa, adieraziz. Bikote hautatuaren leihopean hasten den zeremoniak antzinateko basajaun, giza basati, gizazaldi, luperko edo Gandharva haien ekintzak berreratzen dituela. Lehenik herria inguratu eta hesitu, gero gizonak zikiratu eta azkenik neskatoak izorratuz berekin eramaten zituztenekoak. Ehize gizonak mugagabeko askatasunaz gozaten eta balliatzen ziren garaietako, historia eta lege-tik at ziren uneetako ondorio nola-halakoak.

Dena delarik ere, eta barne-muinetaraino joaz astolasterren baitan Legea dago, edo hobe esan, zegoen, alegia, emakumeen nondik norakoak mugatzen zituena, askazien eta leinuen jarraipena segurtatzen zuen araudia, hain zuzen. Honetan bat datoz Desplat eta Rey-Flaud, ezen idatziak ala ez, erakundeek, ofizialak ala akordu isil baten ondorioz, pertsonai eta gizarteari araudi nahitanahiezko eta betebeharezko bat eskaintzen zieten. Antzinate urrunean sortuak, mendeetan zehar egokituak, Euskal Estatu eta Erresumetako beste lege, foru, ohitura eta erregelamendu bezala gizarte eta moralari zegokion jokabide oso bat erazten zioten.

Ondorio berdintsuetara iristen da Marjoke de Roos, ikertzaile holandarra aztertzen dizki-gunean XV. mendeko fartza alemanak, *Fastnachtspiele* izenekoak, esaterakoan:

Les occasions d'un charivari peuvent être multiples. Très souvent ce sont des mariages entre couples disparates qu'on met en cause, ce qui sont dans la plupart des cas des remariages pour l'un des partenaires. Dans une communauté assez fermée il est mieux pour la continuité des générations qu'on se marie entre des gens qui ont à peu près le même âge: quand les veuves s'unissent avec des jeunes hommes il y aura très peu d'enfants vraisemblablement (et il n'y aura pas assez de candidats pour les jeunes femmes à marier), tandis que les jeunes hommes seront dépourvus de femmes de leur âge du moment où trop d'hommes âgés s'associent à une femme beaucoup plus jeune qu'eux. Dans les anciennes sociétés il fallait surveiller l'équilibre du marché

matrimonial. C'étaient les jeunes hommes pas encore mariés pour qui cela comptait beaucoup et qui s'occupaient donc du contrôle. Les farces du carnaval furent jouées par des jeunes hommes célibataires, des compagnons dans les confréries d'artisans qui n'avaient pas encore atteint ni la maîtrise ni le mariage. Dans les textes des farces –souvent très simples– du XVe siècle cette problématique de l'opportunité des partenaires qui sont à l'égalité se fait sentir régulièrement. [1988]

Bigarren ezkontza hauek, beraz, oso gaizki ikusiak zirenez gero, aginte ofizialaren haizutze eta laxotasunaren aurka, ordezeko ekintza zenbaiten modura sortzen ziren antzekizunok. Bertan agertzen ziren sexu harremanak hain ziren lohi, lizun eta arruntak, bikotearen etsenplu txarrak salatzeke eta ikustarazteko ipiniak, aginteak kasu batzutan onartu bazuen ere begirunez ikuskizuna, gehienetan debekatu egiten zituela eta onartzen bigarren ezkontzak, *de facto* gertatzen ohi ziren egoerei bere onikusia emanez.

Denboraren poderioz, ordea, antzekizunen ohitura basati hau eztituz joan zen, eta gaztediaren isiltzea lortzen bazuten zergen bitartez, alegia, honi ondo bustitako farranda eder bat egiteko aski sos eskainiz, antzekizuna ez zen jadanik egiten senar-emazte beraiekin, hauen harremanen parodia irigarri bat antolatzen baitzuten antzezlariekin. Eta XX. mende hasieran Manex Etxamendi «artzaina»k agertzen digu nola utziko dien ospatzen tobera-mostra bat gazteei, irudikatzen dutena ez bada zerbait gertatutakoaren egiantza duena, alegiazkoa baizik:

*Alegiazko auzi  
batzu egitea,  
nehor kolpatu gabe  
ongi jostatzea  
alegre eta garbi  
atxikiz elea,  
hori zait duda gabe  
kostuma maitea.*

Baina itzul gaitezen kapituluaren harira eta ikus dezagun kostuma hau noizdanik dagoen gurean. Besteetan, bederen Erdi Arotik bizirik zela onartzen da garaiko eskuzkiribuak gonsterbatu dituztelako. Gurean, aldiz, horien ezean berantiar eta kanpotik datozenarena onartu behar ote dugu? Badira zenbait aipamen klarki adierazten dutenak XVI. mendean bazela euskal antzerki bat Nafarroa Garaian eta Basanafarroan. Bat. Oso ezaguna izan arren berriro erakarriko dut hona, alegia, Arnaud Oihenartek ematen diguna, esanez, garaztar apez poeta batek, Jean de Etchegaray izenekoak antzeztarazi zuela batean baino gehiagotan eta Donibane Garazin 1565 urtean, *Arzain gorria* deitu pastoralara [1967:38].

Bestea, lezoar Lope Martinez Isastikoak ematen diguna da, eta ia ezezaguna dena. Honelaxe dio:

Joanes de Larrumbide, organista, famoso por sus habilidades fue vecino de Oyarzun, á donde vivió muchos años. Fue gran poeta de bascuence, que compuso muchas comedias á lo divino, la del sacrificio de Abraham, de Job, de Judith, la Josefina y otras, que se representaron con grande fiesta, y con particular ingenio, que este hombre tenía; y compuso muchas prosas, canciones, é historias en verso; y fue maestro de cantoria que enseñó á muchos. [1850:476]

Badirudi Oiarzunen urte luzetan bizi izan zen euskal poeta ezezagun honek, euskarazko antzerkiak ere jokarazi zituela, eta kasu XVI. mendean bizi izan zen beste Joanes de Larrumbide eskultorearen familiako zatekeen, zeinek 1541. urtean Huesca-ko katedralean lan ederrik burutu zuen, hala nola erretabloa, Sakramenduko kapera eta Nicolas de Urliens-ekin batera pulpitu.

Eransten badiegu bi aipamen hauei Buchon-en lekukotasun benetan fidagarria, zeinek *Mémorial des Pyrénées* (2 novembre 1839) errebistan esaten digun, erosi ziola J.P. Saffores errejentari *Clovis* izeneko pastorala mila eta bostehuneko zena, eta garai beretsuan bazela Alosen Bordet izeneko pastoregile bat, garbi gelditzen da, ene uste apalez, oker ez bana-go, izan zela XVI. mendean euskal antzerti bat.

Honen gehigarri litzateke hizkuntzaren froga, pastoralen eta astolasterren kasurako. Jean Saroihandy lehenik eta gero Txomin Peillen aipatutako lanean arduratu dira gaiaz. *College de France*-ko euskal irakaslearen ustetan pastoral zaharrenen eskuzkiribuen daten eta beren lehen idazkera bitartean epe luze bat iragan zen segurenik. Hizkuntza, arkaismoak gordearik zenbait aldiz, kopia berrietan berritzen joan zen eta inor ez litzateke harrituko ezus-teak erabakiko balu halako batean *Roland* pastorala, XVI. mendeko lehen partean izkiribatu zela.

Areago, zenbait eskuzkiributan agertzen diren formak gertuago daudela Detxepareren (1545) eta Leizarragaren (1571) hizkuntzatik Tartasenetik (1661) baino esatera ausartuko nintzateke. Adibidez, hartzen badugu aztergai 1766. urteko kopia, *Piarres eta Sebadina*, bertan XVI. mendean agertzen diren formak topatzen ditugu: *heskualdun, heuskara, buruya...* XVII. mendean, aldiz, Tartasek darabiltzanak hauek dira: *eskualdun, euskara, buria...*

Bukaera horri buruz, alegia, -uya delakoaz Julien Vinson-ek A. Leon-en tesia epaitzen ari zenean Antoine Thomas, Erdi Aroko ikerle eta filologoarekin, hala nola Gustave Reynier frantses literaturaren irakaslearekin Parisen, hauxe zioen: *Vous citez quelque part le vocabulaire souletin que donne Liçarrague. On y trouve des formes en -uya, Cela nous prouve que l'u n'existait pas à cette époque en souletin.*[1909:270]. Hau da, Lizarragak bere Testamentu Berria-ren amaieran ematen duen zubererazko hiztegitxoan -uya duten erak agertzen direla, esan nahi duenak ü bokala oraindik agertu gabe zegoela. Eta honi erantzun zion A. Léon-ek benetan ezin dela frogatu ü bazenik XVI. mendean, baina behar omen zuten izan bi *u*, batek -*uya* ematen zuena eta besteak -*üya*.

Zubereraren bokal berezi honi buruz idatzi da aski, ezen Thomas irakasleak zioen beza-la linguistika jeneralari interesatzen zaion gaia baita, eta teoria ezberdinak eman baitira, Ascolik uste zuen galoen eraginez izan zela, hauek u-ren ezean ü izan beharko baitzuten. Baina Joseph Augustin Chahoren teoria beste bat da, alegia, ü hori ez dela frantsesa, Karlomagoren garaietatik oraindik askoz geroago hizkuntza teutonikoa mintzatzen baitzuten, eta bai Galoak bai Druidak u hertsu batez baliatzen baitziren. Nondik harturik zeukaten? Duda gabe ez Keltengandik, baizik eta agian Frantziako hegoaldean Galoak eta Keltak baino lehenago izan ziren euskaldun-iberoengandik [1855:5]. Hizkuntzalariek aldiz, bat daude Galiako eremu orotan, okzitania osoa barne, *u* bokalaren ezpainkatzea eta aitzinatzea VIII. mendean egina izan dela esatean.

Zeharo alderantzizkoa da, noski, René Lafonen iritzia, zeinek dioskun, ü bokala etorkiz *u* fonematik ezberdin ez zena, aldaera fonetiko izatetik fonema bilakatzerira iritsi zela aldameneko hizkuntzen harremanen ondorioz, hots, ü zuten hizkuntza erromanikoen eraginez, gaskoina, bearnesa eta probentzalarerekin XI-XV. mendeetan zehar eta geroagokoetan elkar bizi ondoren [1965:901 ss].

Antzintasun froga hauei erants diezaiekegu Junes Casenave-Harigile pastoregile berriak egiten duen bezala [1983:4-10] eraikuntzetako ederlanen jakilegoa, elizetako lekukoak. Bat, Altzabeheiti herriko elizan ediren daitekeena, aldarearen ezkerretik dagoen leihoaren horman, buztin lur gorri marrazkitua, XIV. mendeko irudi bat agertzen baitzaigu, trajeria edo pastoralaren antzeko irudiarekin: neskatila lerro bat, argi koroa daukan andere baten atzetik ibilki, makila eskuineko eskuan daukatela (oraingo pastoraletako «khiristien» gisa), taldean

kantari. Duda gabe Santa Grazi omen. Bestea, Santa Graziko elizarena, berezi berezia dena. Sarrerari buruz ezkerretik dagoen kaperan bi harroinburu badaude, jaien erakusgarri. Ezkerrekoan, xirula jotzaille bat ageri da, korda ttuntuna, kantariak, turken antzeko gaiztoak eta erditan pertsonai nagusia, ederki jantzia, ezkerreko eskua gerrian, besteei buruz aldegaientik keinu handia eginaz, hots oraingo trajerien gisako bat, antza. Eskuineko harroinburuan, xirularia, itzulipurdika dabilen jokalaria, pizti bat ala piztiz mozorroturikakoa, eta hemen Casenaveren iritiz astolaster, zintzarrots eta maskaraden munduan geundeko.

Jakina da Santa Graziko eliza, Santxo Ramirezek (1076-1094), Nafarroako eta Aragoiko erregeak eraiki zuela eta denbora luzez Leireko abadetxearen menean egon zela. Beraz, Casenaverekin bat gatoz harri lekukotasun horiek XI. mendeko urteetara garamatzatela, eta zergatik bila kanpoan gure antzertiaren jatorri nagusia, oinarri zaharrak, etnologoek diotenean, esate baterako, komeria berez etnia guztien emaitza propioa dela, ezin itzulia eta erroetatik berezi-berezia?

Agian gehiegixko litzateke onartzea, beste froga zehatzagorik gabe, Joseph Augustin Chaho atarraztarraren iritzi xarmanta, ez mila urte bi mila urtetakoa dela xuberotarren tradizioa diotenean:

Guidé par la tradition locale, mais surtout par la nature et l'esprit des pièces qui composent aujourd'hui le répertoire du théâtre souletin, en parlant de cette littérature en 1836, auteur de l'Itinéraire n'a pas cru pouvoir la faire remonter plus haut que le dixième siècle: mais il est certain que l'art dramatique, dans la jolie province de Soule, date de beaucoup plus loin. Pour s'en convaincre, il n'y a qu'à faire attention au prologue des pièces souletines. Composé en quatrains de six, sept ou huit syllabes, dont quatre au moins, mais surtout les deux dernières, sont rendues brèves par le récitant, dans une langue qui n'a aucune espèce de prosodie ni de règles de quantité, il est déclamé sur le ton et dans le même goût que la mélodie grecque. Ce prologue fait supposer que la représentation des pièces grecques et latines à Rome, donna aux Vasco-Souletins la première idée de leur tragédie, nous ne dirons pas bourgeoise, mais paysanne [1855:126].

Hau da, Zuberotarrek Erroman ukan zutela beren antzertiaren lehen ideia grekazkoa eta latinezkoa ikusiz. Gai honi buruz, alegia, pastoralak Greziako teatroarekin dituen berdintasunez eta antzez mintzatu izan dira W. Webster eta M. Lekuona, eta ez ditugu hemen azalduko eta ikertuko, baina gorago aipatu ditugun datu, arrazoi eta lekukotasunen arabera ez dut uste ausardia gehiegizkoa litzatekeenik esatea, astolasterrak Erdi Aroko euskal antzezkitzun moeta berezi bat dela, beste lurraldeetan ematen ohi zen helburu eta era berdintsuekin antzetzuta.

### 3. EGILEEZ

HERRI literatura oren ezaugarrietarik bat izenik gabekoa, anonimoa izatea da, eta Erdi Aroan areago. Lirikan ez ohi bezala epikan maiz ematen zen izengabetasuna, eta hau da, bederen, neotraditionalistek nola Manuel Milá y Fontanals eta Ramón Menéndez Pidal-ek ematen duten esplikazioa epikarako, non ematen den anonimatoa «esentziala» omen den, eta ez «akzidentala», berezkoa eta ez saiheskoa, alegia. Baina izenik ez jakiteak arrazoi anitz ditu. Juan Mari Lekuona ahozko euskal literaturaz mintzo zaigunean [1982:20], honakoxe hau diosku, ilunpean gelditzen direla literatura honen egilea eta noiz-nongoak, anonimotasuna eta ahistorikotasuna adieraziz.

Teatroari dagokionean, badakigu nola Alfonso X.ak, Jakintsua deituak debekatu zituen Espainian XIII. mendean «juegos de escarnio» delakoak *Las Siete Partidas* delako lege araudian, eta hiru mendez ez dela debeku eta kontrako agindurik baizik, testuak eta antzerkigileen izenak falta direlarik. la berdintsua gertatzen da Frantzia aldean, aberatsagoa izan arren,

noski, hemengo antzertia, ezen gelditu badira, Luis Petit de Julleville-k [1896:427] dioen bezala, ehun eta berrogei ta hamarren bat fartza, denak 1440. urtetik 1560. urte inguruan idatziak, seguru da ez direla iritsi ehunetik bateko proportzioan baizik.

Eta astolasterrak begiratzuz, badakigu, jakin, mendekio ikaragarriak, odoltsuak gerta zitezkeela, Michel-ek zioenez, eta eskuzkiribuak legearen arabera, antzezkiunaren ondoren desegin edo erre behar baziren, ez da harritzekoa testu gutti eta egileen izen guttiago oraindik iritsi izana.

Honi erantsi beharko zaizkio beste bi zergati nagusi. Bat, jende xumeak ez zekiela idazten, Jean Haritschelharrek esaten digun bezala XVIII. mendean ehunetarik lau gizonek eta ehunetarik emazte batek bakarrik zekien beren izenaren sinatzen. Bestea, beren idazkienganako zeukaten begirune eskasa, Joanes Bordatoren hitzek adierazten diguten arabera: *hau da luburu edera / eta unxa isqiribaturiq / enequin egonda biciqi / holaco luburuq estie / balio deusere eta /niq estut sinhesteriq / batere certaco hori ceureneta arima / galerasten beitu / nu nusu junes edo / jan bordato.*

Badakit, herri ezberdinetako artxiboetan eta paper zaharretan miaketa sakon bat eskatu-ko lukeela kapitulu honek, baina honen ezean argitaratu liburuetan iritsi zaizkigun koblakari eta errejenten izenez, guti izan arren, arituko gatazkaizkizue.

Behar bada, Buchon-ek aipatutako artikuluan ematen digun izena litzateke lehen pastorelegilea izateaz aparte lehen astolastergilearena, hau da, Bordet, Aloskoa, kasu 1500. urte inguruan bizia.

XVIII. eta XIX. mendean baditugu, jada, izen zehatz eta seguruak, eta hauetxei errepa-sotxo bat emango diegu.

M. Oxamendi Arrosakoa dugu 1766. urtean karrosa batetako kantaren moldatzailea, eta eskuzkiribuak dioenez, Hortzaitzen eman zen honen sortzailea gaztea zen eta kaxkarra. Dataturik ezagutzen dugun lehen astolastergilea, dudarik gabe, eta agian Erdi Aroko bertso-larietarik ezagutzen den lehen koblakaria, Dassance euskal kantaz mintzo delarik, bertsolari-rik zaharrena Beñat Mardo omen dela esan arren. Honen bertsoekin liburu pila bat argitara zitezkeela, zioen Chahok, baina tamalez, ez zaigu ia ezer heldu.

Badaukagu beste izen bat XVIII. mendekoa, eta agian kopiatzailearena daitekeena, gauza benetan bitxia dena, agurrean nor den esaten baitigu:

*Zien zerbutxari Bartzen niz,  
populu admiragarria,  
eta orori desiratzen deritziet  
osagarri eta bakia [11.b.].*

Campan-Latsague bildumako *Agardentegilea eta bere emaztea* deitu ohi den astolaste-rren puzketatxoan agertzen zaigu bada, Bartzen delako hori.

Donibane Garazin, 1784. urtean galarrotsetan parte hartu zutenen izenak ez ezagutu arren badakigu zein ofiziotako ziren: uxerra, beringilea, ehulea, eta hiru zapatagin. Pastoraletako errejenta zenbaiten egitekoak ere ezagunak ditugu, eta hauek, maisu zenbait aparte utziez gero (Peru Ahexkoa, Laxaga, Mekol...), ofizio arruntadunak ziren, hala: arotzak (Kintaburu, Irigaray, ...), zurginak (Kasu, ...), nekazariak (Heguiaphaldarrak, ...), ezpartingileak (Oyhanburu, ...), igeltzeroak (Foix, ...), oihanzainak (Foix, ...), bidezainak (Age, ...) ...

Pierre Topet Etchahun (1766-1862), euskal idazle erromantikoen eta trajikoena genuke astolasterretako kanten beste egile bat. Honen bizitzaz jakin nahi duenak jo beza Jean



Haritschelharren tesira, bertan aurki baitezake argitasunik aski, hala nola Jon Etxaideren idazlanetara, Xipri Arbelbidek idatzitako bizitza elaberritura, edota Pierre Bordazarre, Etxahun Irurikoak idatzi zuen pastoralera, Etxahun koblakaria izenekora, 1953, 1962, 1976 eta 1986. urteetan jokatu izan dena, M. Uthurri eta G. Lechardoy errejenten zuzendaritzapean. Irurikoak bere pastoralara idatzi aitzin irakurriak zituen Pierre Espil-en *Etchahun le malchan-ceux*, eta Pierre Larzabalek, euskal Lope de Vega delakoak, Etxahuni buruzko antzerkia, Euskal Iztundea deitu antzetzaldeak jokatu zuena Antzoki Zaharrean 1962. urtean, hau da, bere heriotzeko mendehurrenean.

*Eihartxe eta Minau* izeneko ahapaldi xarmangarrietan Etxahunek latina gaztelania, bearnesa, frantsesa eta euskara nahasten ditu, eta Haritschelharren ustetan astolaster batetako aitzin pheredikia litzateke. Irakasle honen ikerketen ondorioz esan daiteke astolaster hori 1813. urte inguruan ondu zela.

*Maria Solt eta Kastero* izeneko kanta, xit ezaguna zaigu eta seguruen astolaster batetan kantatuko zen Jon Juaristik dioenaren arabera, eta zenbait aldaeretan ahoz-ahoz iritsi zaiguna, besteen artean bat Txomin Peillenek Batista Sagardoy Ligueixi entzuna eta Parisen argitaratzen zuen *Igela, euskaldun heterodoxoen errebistan* 1962. urtean plazaratua.

*Ahargo eta Kanbilu* genuke Etxahunen astolasterretako hirugarren kanta *Igelako* ale berean, hala nola Azkueren kantategian, hemen nori eta noiz entzuna zionaren zehaztasunik ez eman arren.

*Piarres Adame* dugu, bestalde Lapurdi aldean 1820. urte inguruan koblakari bezala agertzen zaiguna Sarako gaztediak erabaki zuenean antzezkiuzon irrigarri bat prestatzea Turrut-Arrosa izeneko agureari, hau laugarren aldiz ezkontzera zihoala eta. Aski ezagutua dugu Piarres, batipat Jean Baptiste Elizanburuk bere bizitzako pasadizo batzuek kontatuz idatzitako liburuttoari esker, duela guti Ibon Sarasolak berrargitaratua eta zenbait kritikarientzat lehen euskal elaberrri laburra.

Baionako Herri Liburutegian bada eskuzkiribu bat frantsesez idatzia eta kontatzen diguna nolakoa izan zen Sarako antzezkiuzon hori, eta nola ematen dizkigun xehetasun bitxi zenbait, egoki iduritu zait hemen agertzea osoki dena:

Duela hirurogei urte bazen Turrut-Arrosa izen-goitiko bat, Arrosaeneko semea eta bertako nagusia, laugarren aldiz ezkontzera zihoana.

Hiru lehen emazteak hil egin zitzaizkion eta bera urtetan sartua egonagatik laugarrena hartzetokotan zebilen.

Sarako gaztedi guztiak erabaki zuen, beraz, ohiturari jarraikiz, egin behar zitzaiola antzerki irrigarri bat pairarazi. Gauero Arrosaeneko atarian biltzen zen eta hantxe adarturutak jotzen zituen, Donapaleuko eta Luzaideko gaztedia ere bildu zitzaielarik saratarrei elkarrekin soinu instrumentuak joaz.

Turut-Arrosak laugarren emaztea hartu zuenean Sarako gaztediak erabaki zuen astolaster bat herriko plazan eginen zitzaiola, bertako jaia antolatzeak diru xahutze zenbait erakarriko bazien ere.

Iritsi zenean eguna Sarako plaza jendez beteta zegoen, Gaztedia Ixtilarteko auzoan jada prestaturik zegoena jaitsi zen herrira.

Atabal nagusia Jean Louis Mikeleperitz izenez aurrena zihoan, eta bere gibeletik tropa guztia ezkondu berrien bikote bat inguratuz (Turut-Arrosa eta bere emaztea idurikatzen zutenak).

Plazan oholtegi bat eraikirik zen eta bertan Piarres Adame, Sarako bertsolari famatua zutik. Hantxe antolatutik zegoen epai-mahai bat Turut-Arrosa juzkatu behar zuena. Epai-mahai honek bazuen zaldizko mezulari bat paperak zeramatzana, eta beransko zetorrena. Lehendakariak igorri

zuen zalduna Sorhoteneara eta haren aitzinean erori zen. Orduan Piarres Adamek bertso hau kantatu zuen:

*Jaun jujeak igorri du kurrier berria,  
ustez eta izanen den lehengoa baino hobia,  
Sorhoteneko atean dago zalditik eroria.*

Epai-mahaiak Turut-Arrosa zikiratu egin behar zela erabaki zuen, eta erabakia betetzera prestatu ziren. Zikiratzaile Piarres Urtte zen, bere erramintekin, urarekin eta gatzarekin aurreratu zena. Ezarri zuten epaitua, Ur-Txoko izenekoa, mahai baten gainean bortxaz, noski, eta garrasioihu izugarrien bitartean zikiratu zuten. Orduan plazara xahal baten barrabilak bota zituzten, Turut-Arrosarenak balira bezala. Une honetan Piarres Adamek beste bertso hau abestu zuen:

*Berriz gerthatzen bada okasione horretan,  
bizirik ehortzi behar dik Tteilariako errekan,  
eta besta eder bat egin jaun horren ohoretan.*

Turut-Arrosaren emaztea haur esperantzatan baitzegoen, erditzearen min eta oinazeak itxuraztatu zituen eta laguntzeko Donapauleko medikua ekarri zuten, Latapie izenekoa. Honek bere aholkuak eman zizkion gaiso emakumeari katu batekin oheraziz. Katu gaiso honek, ordea, jauzi eginik izugarriak pairatu zituen jendeen artekin ihes egin baino lehen, eta orduan Piarres Adamek berriz beste bertso hau bota zuen:

*Latapie jaunak ederki  
nola futre sakerti,  
gizon gibel zurien andrerik  
ez ditake ongi erdi.*

Eta honelaxe, bada, gutxi gora behera, amaitu zen komeria hau, jarraian eman ziren dantza eta libertimenduekin [Baionako Herri Liburutegia, 88. eskuzkribua].

Zikiratze erritu eta irudi hori badakigu agertzen dela ez bakarrik Lapurdin, Nafarroan Lantzeko herrian ihauterietan idurikatzen baita Zaldiko, zaldi-gizona, eta Zuberoan maskaradetako Zamalzaina. Asko idatzi da zamalzainari buruz eta kherestuen eskutik zikiratua izanak duen esanahiaz eta ez dugu hemen errepikatuko, baina bai esan Pirineetako beste herri batean, Prats-de-Mollo izenekoan, alegiazko zikiratze hori ematen dela haizkoraz ile guztia ebaki eta mozten dioten hartzarekin. Zamalzainaren XV. mendeko irudi bat aurki daiteke Iruñean «Privilegio de la Unión» delakoan, eta Saran gertatu bezala Zuberoan ere zikiratua- ren barrabilak ikuslegoaren artera jaurtikiak ohi izaten dira. Halere, balirudike ez duela bere boteretik galtzen, ezen berriro jauzika inoiz baino zaluago, arinago eta indar gehiagorekin hasten baita.

Izenetara itzuliz, 1848. urtean bi astolasterregileenak agertzen zaizkigu. Bata Heleta herrian J. B. Toulet izenekoa, eta bestea Jakes Oihenart, Uharte-Amikuzekoa. Honek apirilaren 30.ean *Kaniko eta Belxistine* jokarazi zuen, eta berak idatziak edo kopiatuak lirateke ere zenbait pastoral, hala nola, *Roland* Labaten (1827) eta Gabadin (1847) antzetzua, *Aymonen lau seme-ak* Uharte-Amikuzen (1851) jokatua, eta *Santa Elena* Ozazen (1854) emana, antza denez, gelditu zaizkigun emaitzengatik pastoral eta astolasterregile oparoenetakoa dugularik.

Joanes Oxalde (1814-1897) da bestea. Bidarraitarra, eskola frantsesean ez sobera higu- tua, gaztetan libertizionia maitatu zuena eta 1838. urtean guardetan onartu zutena. Ofizio honekin Saran, Lekornen eta Beraskoitzen ibilia, Ameriketara ere Argentina aldean saiotoxoa bat egin, baina hango bizitza sobera laketzen ez zitzaiolarik berriro etxera itzulia. Abbadie jaun- nak antolatutako Euskal Jaietan sari batzuen irabazle gertatu zitzaigun, adibidez, Saran (1868, 1878), Maulen (1880), Donibane Garazin (1894)..., *eta herriko pesta, tobera, eztei, pilota-partida ta gaiñontzeko bilkurarik, etzan berrogei urtean izan, Baigorritik Maule'ra,*

*Otxalde bertsolaria gabe* [Moulier, 56]. Bertso irrigarri eta tenore edozeinetako metaka botatzen omen zizkion Oxaldek bidertzeko kantoi batean eserita bidaiari edonori, baina gontserbatzen ditugunen artean *Irisarriko Toberetako kantuak* 1883.ean jarriak, eta *Pepa eta Koakin* goitizena dutenak dira gaiari dagozkionak. Azken honetan, garaiko Elizaberri Arbaindeko ostatua zeukana eta Pepa Etxepare, Bordako alaba, ostatuko neskatoaren arteko berri lizunak ematen dizkigu. Kanta egilearen ospea, ordea, bertsolariarena finkatze bidean zegoen bere izena argi eta garbi ematen baitigu inongo bildurrik gabe bertso honetan:

*Kantu hauien emaile Oxalde Larregain,  
Presentak merezi tu eginaren ordain,  
Hazi on bat baitute hauek erain,  
Zien falta guziak hartzen tut ene gain.*

Zein urrun dagoen jada Joanes Bordato edota gaizki moldatutako bertsoengatik barkamena eskatzen zuten gazte haiengandik!

Ezagutzen diren beste toberagile batzu ere aipatuko ditut bukatzeko kapitulu hau, beren idazlanak iritsi ez zaizkigun arren. Pio Barojak Ainhoako sakristaua Dominique Elissalde de Elissagaray eta bere laguntzailea Joan Pedro Irunberrikoa, bi Plauto laborari bezala aipatzen dizkigu, benetazkoak baino bere irudimenak asmatuak diruditenak.

Jean Baptista Hardoy, Santagraziko oihanzaina *Belkader Afrikako erregea*, eta *Tuduk Anam-eko enperadorea* deitzen diren eta galdutzat jo ditzakegun astolasterren egilea dugu. Hauek 1892. urte inguruan Santagrazin antzeztu ziren, eta bat jokutzen ari ziren bitartean jendarmak agertuz antzezkizuna geldiarazi eta debekatu zuten, epaileengana astolastergileak eramanez.

Azkenik, M. Larramendi, Eiheralarreko koblakaria, Ezterenzubiko herrian 1926. urtean apirilaren 11.an parte hartu zuena ohitura zaharrari eutsiz ikusleko guziak ezagutzen zuen bikotearen istorio tamalgarri eta irrigarria kantatu eta antzeztarazi zuena, eta XX. mendeak Larraburu eta J. B. Irigoienekin batera parte hartua astolasterretan, genuke [Nogaret, 1926:42].

Izen uzta benetan urria eman diguna errepasotxo honek kontutan hartzen badugu ehunka antzeztuak izan direla, batez beste astolaster pare bat urteoro. Ondorio honetara garamatza guzti honek, alegia, herri literaturaren eta bereziki antzertiaren berezitasunik nagusienetakoa bere anonimotasuna dela azpimarratzera.

#### 4. GAIEZ

ASTOLASTERREN katalogo bat egitea ez da erraz birritan adierazitako arrazoiak direla eta. Beste lekukotasun bat emango dugu, halere. Jean Pierre Bohotegi (1811-1877) Arueko errejentaren paperak, bera hilez geroztik familiakoek gorde eta galdutzat jo zituzten 1926. urtean Campan-Latsague andereak zaku batean ediren zituen arte. Hantxe zeuden astolasterrek pastoralekin batera, eta oro Baionako Euskal Erakustegiko Liburutegiari oparitu zizkion, Euskal Antzertiaren Historiari, eta bidenabar literaturari eta azken finean kulturari zerbitzu handi bat eskainiz.

Hainbat aldiz aipatu eta izendatuko dugun Hérelle euskal antzertizale eta errromanistak zioenez, oso guti eta zail ziren aurkitzen. Horrela, zitezkeen gai guztien xehetasunak ematea ezinezkoa bazaigu, iritsi zaizkigun eta nolazpait ezagutzen ditugun astolasterretan ageri diren gai ei helduko diegu orain. Gai handi eta ttipi, ardatz nagusi eta saihetsekoak, arruntak eta desarruntak, orokorrak eta partikularrak.

Alargun baten berrezkontza berria herrian zehar barreiatzen ohi zen bezain laister, gaztediak azienda guztiari zintzarrots eta joaleak kenduz, sukaldea tresna eta erraminta soinugileez hustuz, adar turutak eta beste hartuz, koblakari bat buru zuelarik prest zegoen libertsiotarako eta jokorako. Gauez-gau bertsoak paratuko ditu koblakariak ezkontideen leihopean buila eta iskanbila larrien artean, astolaster bat antolatzen ari direla kalez-kale hedatuko dutelarik astolastergileek.

Hona hemen osorik aipatu dugun Saroihandy ikerle ospetsuak 1916. urtean Hondagne ostatuan 70 urtetako Margarita izeneko andere baten ahotik jaso zuen iragarkia:

*Si bou boules crede  
Aqueso qu'ey bertat,  
Igantian diráte astolasterrak.*

*Barda entzuten dit  
berri triste bat,  
emaztek dutie  
zaflatzen senharrak.*

Bearnesa dugu bi bertsolerro lehenetan, xuberera besteetan, eta astolasterraren eragilelea ikus dezakegunez, emazteak senarra zaflatzen zuela, jotzen zuela nonbait, izan zen. Iritsi zaigun astolaster zaharrenetakoaren eskuzkiribuan, *Juanik Hobe eta Arlaita* izenekoan, hain justu, hori bera azpimarratzen da frantsesez, *L'Homme battu par sa femme*, eta, noski, horrelako egoeratik hobe zukeen gizagaisoak joana balitz, astolasterraren idazleak ezarri duen izenarekin bat egitearren.

Harreman itsusi hauen aurka gaztedia altxatuko da eta erritua, zeremonioa martxan ezarriko du, *errak* to-ka salatzen zituztelarik gaitzetsi nahi zituzten gertakariak, gelditu zaigun beste astolaster baten iragarkiak elkarrizketa batean salatzen duen eran:

*-Errak, to!  
-Zer duk, to?  
-Badakika berri?  
-Zer berri?  
-Gurdoenean oiloa nausitu zaiola oilarrari.  
-Zer ari dituk? Oilarra erruten?  
-Ez oraino, baina oiloa kukurruku egiten!  
-Josepe dea oilotu?  
-Ba eta Margarita oilartu.  
-Berri horren ohoretan  
jo adarra errepikan,  
klan! klan!*

Mikel Azurmendik *Euskal Nortasunaren Animaliak* [1987] izeneko tesian adibide ugari ematen dizkigu oilar-oiloen irudiaz. Hala nola nagusia etxean denean etxeandereak, senarduenak jauna baitu, zein-nolako errespetua eta begirunea zor dion, oiloak oilarrari legez, gizonari. Oiloa oilar bilakatzeak, oilotegiko desordea adierazten duela, eta desoreka honen aurka altxatuko zirela Oihenart bezalako errefrauzaleak eta Axularren itzalean idatzi zuten Elizako moralistak. Sarako erretore izan zen urdazubiarrak oroitzapen ahantzezinezko liburuan alegi bat ematen digu, Ziro enperadorea eta bere amorantearena, eta salatzen nola zegoen naturaren legeen aurka kukumarro bilakaturik, *amorantea zen nabusi; no zen to; emaztea gizon, oiloa oilar*.

Iragarki eta salaketa hauen ondoren alargunaren ezkontza zetorren. Gauean ohorezko gorte batek, musika tresneria eta erreminta zalapartariz ornituta, laguntzen zituen ezkontide-

ak elizara, mutikoen prozesio moduan, eta elizakoen eskarnioz lur pote batzuetan piper gorriak erreaz intzentsu bailtzen kirats nardagarri eta nazkagarria ezin gehiago karriketan zehar zabaltzen zutela, oihu, eihagora eta irrintzi artean.

Ezaguna den bezala, arrunt ohizkoak ziren Erdi Aroan, Errenazimendu garaian eta geroago ere elizkizunetako parodiak. XVI. mendean, adibidez, protestante batek idatzitako *Aitasainduaren Sukaldeko Kristau Satirak* liburu famatuan, Eliza mundua estaltzen duen sukalde erraldoi baten antzeko agertzen da: kanpandorrea tximinia bailtzen, kanpaiak eltzeak, aldea bazkal mahaia, erritu eta errezo ezberdinak platera diferenteen gisako, etabar.

Esposatuak elizkizunak bukatutakoan elizataritik etxeraterako bidean gaztediak berriro zaintzen zituen buila eta iskanbila, ke eta garren intzentsu nazkagarrien, tut eta turuten abarrotsez inguraturik. Honelaxe, bada, pairarazten zitzaien zorra kitatu ondoren, (zigor eta ordain benetan basatia), senar-emazte ohitura hausleek azkenez aurkitzen zuten hainbat desiaturiko bakea.

Zigor hauetaz aparte bazen beste bat benetan bitxia, *berdurak* deitua, eta, honetaz mintzatuko gaizakizue orain, laburto bada ere.

Leopold Irigarai mende hasiera honetako pastoral errejenta, itzultzaile, kritikari eta George Hérelle-ren laguntzaileak honi kontatu omen zionez, gaztediak somatzen zuenean andere batek maitale, amorante edo ohaidekari ezkutu bat zeukala, Bestaberri eguneko prozesioaren antzera, lege hausleen etxeak batzen zituen bide eta bidezidorrak berdurazko tapizez estaltzen zituela, noizpait bide berdexkara hura bi kilometrotako luzera izatera iritsi zelarik. Hala, Atharratzeko herrian 1902. urtean Bestaberri bezperan gainera, amorantei ezarririkakoa, nola Ligin beste gau batez okinari eginikakoa. Berdura hauen oroitzapen edo erreutu bat kontatu berria dit Txomin Peillenek nola duela guti gertatu den Santagrazin. Ohartu omen zela, bada, emaztea bere senarra bazebiltzaiola auzoko andere batekin eta biltzen omen zirela mendi saihetseko borda batean. Orduan, errituari jarraikiz, bere etxetik bordaraino zihoan bidexka harrixintzar batzuez lotu zituen eta borda atarian kukumalo baten irudia zintzilikatu.

Dena den, utz ditzagun orain berdurak eta antzeko gaitzeste erak eta itzul gaitzezen astolasterretan ageri diren gai nagusietara.

*Agardentegilea eta bere emaztea* izenez gontserbatu zaigun astolasterkaren zatiaren lehen bertsoetan agardentegilea inkredul bat dela salatzen da, sinismenik gabea izateagatik eta emazte pollit, grazios eta agradamenduz betea ukaiteagatik galeretara edota putzu barne batera botatzea eskatzen da.

*Ardeatina eta Ludobina*-n gai aski ezarruntak agertzen zaizkigu. Alde batetik, bertso ezabatu baten azpian salaketa hau irakur daiteke, alegia, neskatilak apezan bonuretako direla, abadeen plazera eta gozamerako soilik, gazte baten kezu moduan. Beste aldetik, aborto kasu bat ere aipatzen zaigu, gauza benetan bitxia, ez baitakigu zein ziren garai haietan horretarako ohitura eta baliabideak, eta ez zaigu gainerako argitasunik ematen, honelaxe dioela Ardeatinak:

*Diela zerbait denbora  
ikhusi zuntudan izorra  
eta orai aldiz  
untsa meherik sabela.*

*Apherentziak manhatzen dizie  
haurra galerazi duzula,  
eztenaz geroz izan etxen  
Graziusa emagina.[24.b.]*

Ignacio Barriolak Euskal Herriko sendagintzaz eginiko liburu batean [1963: 73] aipatzen digu nola Frantziako erresumaren arabera emagina izateko azterketa bat pasatu beharrean aurkitzen zirela eta horrela egiten zela Nafarroan ere, bertako Gorteetako legeak zioeten bezala 1724. urtean, baina herri txiki eta apartatueta haur zain ziren andereen kontu emakume esperientziadunek zutela, kasu arruntetan erraz antolatzen eta ateratzen zitzaizkielarik gauzak, baina gaizki zetozenean ondorio gaitz tamalgarriak gertatzen ohi zirela. Pierre D'Urtek ematen digu bere hiztegian okasio hauetan erabiltzen ohi zen belar baten izena, hau da, *ajugabiga, haurgalbelharra*.

*Bala eta Bilota-n Petit Jean eta Sebadina*-rekin batera bearnesa gehien agertzen den astolasterrean, eta era berean eskuzkiribu zaharrenetakoan, bi senar-emazte agertzen zaizkigu beti haserre eta beti liskar bizian, eta ostatuko jaun-andreok ardoa bataiatzea erabakitzen duten bitartean amorraturik dihardute bata bestearen kontra, alaba Haria amaren baimenez dantzara irten delako aitzakiarekin. Hemen, bestetan baino hobeto ikus daiteke xuberoar eta bearnesen arteko gorroto eta borroka sutsu, ezin itzaliak, bidenabar Balak emaztea honelaxe ornitzen duen ahapaldian:

*A, urde buria,  
biarnes debria,  
ezagutzerik  
batere gabia,  
[...]  
Bai, bai, hauxe dut  
biarnes torpia. [21, 26b.]*

*Belkader, Afrikako erregea* Hardoy oihanzainak idatzi zuen astolasterraren (galdurik izan arren) gaia ezagutzen dugu. Fideltasun ezaren arazoa agertzen zaigu hemen. Belkaderrek eta bere amak era guztietako lanak egingo dituen neskame baten bila dabilta eta hau Grossilla bearnesa izango da. Belkader honekin ohera maiz joan arren Klementinerekin ezkonduko da, baina emaztea ohariturik senarra eta neskamearen arteko ohatzeez istilu ikaragarri bat sortzen dio dena ukatzen dion senarrari.

Erdi Aroa eta Errenazimenduaz geroztik Mirabeaurenganainoko frantses antzertian neskameak maiz agertzen dira eta gehienetan gazte eta pollitak izaten ohi dira, gelditu gabe amodiozko abenturetan parte hartuz. Hala, *Farce du Goguelu* eta *Farce des Chambrières* delakoetan horrelakoak ugari ageri dira. Lucien Febvre-k aztertzen duenean Margarita Nafarroakoaren *L'Heptameron* elaberrian ematen diren kasu berdintsuak esplikazio hau ematen digu, alegia, garai haietan ezkontzak ez zeudela amodioan finkaturik, ekonomia interesetan baino, eta horregatik emaztearengan espero bezalako erantzunik ez zuenean aurkitzen etxeko nagusiak, maiztoto gertatzen ohi zela, haragiaren deia eta kilikua neskame gazte-pollitangan asetzea, aski errazki [Lebeque, 1983:3-14].

*Bubane eta Xiloberde* antzezkiuzuean, ordea, alderantzizkoa gertatzen da, fideltasun ezaz kexu dena senarra baita. Hemen, anderea ez da konten soilki adarrak ipintzearekin senarraren kopetea, senarraren izerdiaz lorturikako diru apurra xahutzen baititu bere ohai-deekin gormandizkeriatan. Are gehiago, bere emaztearen amorante den Kopet morroiak matrailekoz josiko du giza gaisoa. Xiloberde haur batez erdituko da, eta Bubane ez du nahiko berea bezala jo, nabarmen baita berea ez dela. Azkenean Bubane hil ondoren bi amoran-teak nahiko dute ezkondu, baina nola alargunsa batek hamar ilabeteko dolu epea gorde behar duen, auzapezak eragozpenak besterik ez dizkie ezarriko.

Duela urte batzuek Goyhenetche [1985] argitaraberria duen 1645. urteko Basanafarroako legediaren arabera, primitasun eta semeen arazo guztiak oso ongi xeheturik zeuden, eta,

adibidez, alarguntsa lizunkeriatan ereriko balitz senarra hil ondoan honek utzitako ongi guztiak galduko lituzke (XIV. Artikulua). Seme bastarten arazoa oso arrunta zen zirudienez, *Rekokilart eta Arieder* izeneko astolasterrean azaltzen den bezala:

*Hik hala nahi badun  
nahi ait errejstratu,  
bestela ene semiak  
bastart behar din baratu.* [117. b.]

Baina kasu honetan emaztearen nahietara senarra makurtu arren, askotan eta askotan kexu ageriko zaigu besteen haurrak jantzi eta elikatu beharraz, *Bubane eta Xiloberde*-ko pasaje batean bezala:

*Eta bethi ere ari  
besteren haur hazten.* [7. b.]

Kaniko bigarren ezteietan Belxetine ozpinagrearekin ezkonduko da, eta honek etxeko lanak oro eginarazten dizkio. Egun batez, soberaxki edan du gaisoak, eta Sabant-Salhatan alproja lotsagabeek engainatzen dute zeraman zaldi ederra asto zahar batekin trukatzeko diotelarik. Hau dela eta emazteak erratz kolpez astinduko du senarra.

*Xiberu eta Marzeline* ikuskizunean gizon ezkondu baten eta kaxkarin baten arteko gora-beherak ikusiko ditugu. Nola Marzelinek eta ama Tomalinak Xiberu liluratzeko bazkaltzera gonbitatzen duten, eta elikadura berezi bat ematen jatera honako hau:

*Aragi freskareki nahasirik  
asto hun eta olio,  
hura erremedio huna dun  
mutikuen gogatzeko.* [48-49. b.]

Alegia, gizonen borondateak eta grinak erakartzearen birtute bereziak dituzten janari-edariak, astomuinak eta olioak haragi freskuarekin nahastuz. Majia eta sineste hauen iturburuak urruti daude. Horrelakorik ere irakur daiteke Margarita Nafarroakoak XVI. mendean eta Biarno aldean hain zuzen 1535.ean idatzi zuen farta batean, *Le Malade* izenekoan. Bertan jokalaria hauek parte hartzen zuten: herioak, andreak, gelazainak eta medikuak. Pertsonai guzti hauek zeharo konbentzionalak dira, hau da, jokatze tradizio luze baten ondorioz finkatuak.

Hona hemen zein nolako sendagailu darabilen pertsonai batek: kataplasma bat bost arraultze gorringoz, basurde xuri eta ederraren hortz batez, belar zenbaitez eta urxapal xuri baten kakaz ondutakoa. Horrelako eta tankerako erremedioak plazeretako txarlatanen sendagarriak orotarazten dizkigute, ofizio horiek garai haietan eta geroago ere bizirik ziraute larrik. *Xiberu eta Marzeline* astolasterrean beste hau edireiten dugu ere, gaiso zahar erdi itsu baten sendatzeko:

*Nik erremedi emanen deizut  
harek on eginen beteizu,  
sudurretik tabak har ezazu,  
bista erakarriren beteizu.* [354. b.]

Amodio eritasunak sendatzeko literaturan unibertsalean maiz ageri dira edari miragarriak, kasu ezagunenetakoa Tristan eta Iseult elaberrikoa dugularik. Hemen, Iseult-en amak Marc erregearentzat prestatuko du, baina Iseult eta Tristan-ek edaterakoan hauentzat ondorio gaitzak baizik ez du erakarriko. Beste kasu gogoangarria Richard Wagner-en *Jainkoen Ilunabarra* litzateke, Siegfried Brunehildekoak edaten duen edaria eta Gutrun-enganako amodioa

sorraziko diona. Ehunka daitezke iragazki horietan sar daitezken konbinaketak, baina hona Pierre Morak ematen zuen formula Pariseko L'Arsenal-eko liburutegian aurkitzen den *Zekerboni* eskuzkiribuan:

*Maitatua izan nahi baduzu har ezazu urxapal baten bihotza, xoriño baten gibela, enaratto baten emasabela, erbi baten giltzurrina eta oro hauts bilaka ezazu, eta neurri berean zure odol legortuaz nahastaka ezazu, eta bizpahiru aldiz drakma baten tamainako ahatarak irens-tarazten badiozu maite duzunari, hau guztiz zure dukezu.*

Amodioaz ari garenez gero sinuen eragina aipatu gabe ere ezin utzi, eta hona zer aurkitzen dugun *Kabalzar eta bere familia* deitu astolasterrean zahar maiteminduei buruz:

*Sinuek erakutsi deitade  
lehen artikulian,  
zaharrak amurus direla  
bixisto den urtian. [3.b.]*

Eta pundutxo hau amaitzeko irakur dezagun nolakoxea zen maitasun adierazte horietako bat; Saturna eta Venus artean:

*Ez adiorik, Saturna,  
utzul zite laburzki,  
zeren eta ezinago  
laketa beiniz zureki. [39. b.]*

Majia kontuak behin baino gehiagotan ageri dira, hala, *Malkus eta Malkulina* izenekoan majiagilea «majiziena» deitzen da eta darabilen antzea «majiziengoa». Antze hauen artean bidai luzeak denbora laburrez egitekoa litzateke bat, honako bertsu honek dioen eran:

*Oren batez eginen dugu  
hirur ehun lekhua,  
enplegatzen balinbadut  
ene majiziengua. [450. b.]*

Gertakari honek oroitarazten digu Pierre de Lancre-k kontatzen zuen istorio hura, Ternuaraino erratzen ganean joaten ziren sorginez. Han itsasontzietako masta nagusian zintzilikaturik (ez baitziren itsasontzi barnera sartzera ausartzen, hau bedeinkatua zenez gero), beren hautsak goialde haietatik botatzen zituztelarik eta marinel gizaraxoek lehortzen utzi zituzten gauzak pozointzen.

Sorginen akelarreak aipatuak izan dira ahozko literaturan eta ipuinetan, nola Azkuek bildu zuen *Sorgin Barria* izenekoan [1966:332]. Gutxi dira, halere, gaia ukitzen duten testu zaharrak. Adibidez, Luis Villasante harri eta zur gelditzen da *Gero*-n giristinoen bekatu moeta guztiak aipatuak direlarik, sorginkeriaz ez dela fitsik esaten. Menturaz, lehengo izugarrikeria haiek berritzeko ez zuelako aitzakirik eman nahi, edota bazekielako ongi gaiztakeria baino gehiago buruko eritasuna eta ezjakina zirela guzti horien azpian.

Julio Caro Barojak ematen digu sorginei buruz idatzitako liburu bati ipinitako eranskin batean [1975:312 ss] zenbait bertso, Jean d'Espagnet lehendakariak latinez emanikakoak *Le Sabbat* izenekoak XVII. mende hasieran idatziak, hala nola bere aitona Serafin Barojaren paperen artean aurkitutakoak. Halaber, Jean Barbierrek idatzi zuen *Sorginak* deitu antzerkia [1922], geroago Manuel Lekuonak gipuzkerara itzultitakoa, baina Pierre de Lancrek emaniko hitz solteez aparte ez da aipamen zaharrik, uste dugularik lehena *Malkus eta Malkulina* astolasterrean ageri dena dela. Hemen, bi alde ditu kontakizunak. Lehenbizikoan Majizienak Brundemor gonbitatzen du akelarrera, bertan atsoekin libertitzera:



*Iklusiren duzie  
leku agradablerik,  
hanitz musizien, tinbala  
eta dantzari ederrik.  
Hanitz atso badirade  
etxen ezin higituz,  
ikhusiren dutuzie huak dantzan  
uzkiak untsa altxatuz...[419-422. b.]*

Bigarrenean ikusten dugu Brundemor gizaraxoa deserto batean bakarrik, sorginak jaurti-ki duelako bere bizkarretik Kristoren izena aipatu duelako:

*Sira, abiatu nunduzun  
emazte baten bizkarrian  
eta Sabatuaren ikhustera  
bagunduazun airian.*

*Phezu nintzela otsez  
urthuki nizu juaitian,  
eta orai heben nuzu  
estremitate haundian. [440-441. b.]*

Aipatu astolaster hau dukegu benetan majiarekiko ohar gehienak ematen dizkiguna, kartak botatzea ere azaltzen delarik. Jakin, badakigu nola Tarota ediren ospetsunetarikoa den, bertan etorkizuna ispilu batean legez ikusten duelarik magoak. Ate misteriotso bat idekitzen duena, pertsonen ilusioak eta esperantzak. Bere etorkia, ordea, ezezaguna da, zenbait eskola liburuk dioenez, Gringonneur margolariak asmatu zuen. Hala, Charles VI.ari (XIV.m.) atsedean emateko sortu zena zorotasunaren sendagarri bilakatua zen. Court de Gebelin-ek, aldiz, uste zuen Ejiptotik zetozela eta Antzinateko idazle batzuek aipatzen duten Thot liburuaren ondorena zela. Baina hain urrun joan gabe iturburu bila, argi dago Erdi Aroko gizarte mailen adierazgarri dela, ezpairik gabe, makilak laborariaren harma eta nekazaritza irudikatzen baitu, kopak –edalontzi sagaratuak– eliza eta apezak, ezpatak gudariak, eta urreak merkataritza. Hona, *Malkus eta Malkulina*-n kartomantziaren adierazle bat:

*Karta horien berthutez  
nik dut phentsaturen  
zien bizi orotan  
zer zaizien agituren. [283. b.]*

Itzul gaitezen, ordea, Xiberu eta Marzelineren arteko harremanen harira. Xiberuk ikusirik Marzeline okupatua dagoela, Espainiara eramango duela eta han lana aurkituko diola, agintzen dio. Hala egiten du eta Marzeline espainol baten zerbitzuan jartzen da, honen ohevide bilakatzen delarik. Gorago aipatu dugu harreman interesatu hauen zergatikakoa. Baina horrelako egoeran neska gazte bat, herritikurrun nahiko bakarrik suertatzen omen zen, eta halako batean Arnegi basanafatar gaztearekin topo egiten du eta honek egindako ohe proposamenei baiezkua emango die, zalantza batera gabe. Hona hemen Arnegik eufemismoz beterik egiten dion elkar kontsolamenduzko eskaintza:

*Frantsesa frantsesaren ikustik  
beti plazer egiten du,  
hartakoz behar dizugu  
zuk eta nik algar kontsolatu. [126. b.]*

Prima delakoaren ustearekin engainatzen du Marzelinek Arnegi eta gurasoen etxera itzultzen du honek. Pagot eta Tomalinak bere alabarekin ezkontarazi nahi dute Arnegi, edo bederen haur baten zaintzeaz arduratzera behartu, mehatxatzen dutelarik auzitara eramanen dutela ez badu bietako bat egiten, aukera bat hartzen. Arnegi, ohartuz engainuaz eta Marzelinearen pobreziaz, ez da makurtzen eta Pagot astindu eta jipoitu ondoren alde egiten du. Marzeline, bere bizitza higituaren bukaeraldean maitale mordo bat eta haur bastart aski ukan ondoren, erdi itsu, egoera tamalgarri batean aurkitzen da, baina Xiberu urrikitzen zaio eta berriro maitemintzen, eta jada emaztea hilik alargun bilakatu baita, ezkontzan eskatuko du Marzeline, eta nola oraindik bi xaharren jaidura, pasio eta gutziarik ez diren itzali, elkarrekin ganbararantz joko dute antzerkiaren amaian.

Astolaster ezberdinetan agertzen diren ezkon-formulak berdintsuak baitira, zenbaiten adibideak emateari helduko diogu orain. Ohizko den bezala apezak edo epailariak eskatzen dio senarrari/emazteari nahi duen emaztetako/senarretako bestea. *Malkus eta Malkulina* astolasterrean hitzok in zehazki:

*Malku, hartzen duzia  
Malkulina emaztetako?  
[...]  
Malku, senharretako  
hartzen duzunez errazu. [533-535. b.]*

Marzeline Heguiaphal, pastoral errejenta familia batetakoa da eta oraino bizirik den errenjentak dituen eskuzkiribuen artean bada bat *Pierris eta Catiche* deitzen dena eta bertan beste ezkon-formula hau irakur daiteke:

*Pierra, hartzen duzia  
zue espusatako  
Katixa heben  
present dena? [25. b.]*

Halaber *Saturno eta Benus* izenekoan non esan baitaiteke aurreko bien formulak lotzen diren:

*Saturna, nahi duzia  
eta hartzen duzia  
zure emaztetako  
Benus presentekua? [Sa., 296. b.]*

*Juanik Hobe eta Arlaita* astolasterraz mintzatu gara gorago eta ikusi nola Arlaita lotsaga-beak senar gizagaisoa masailekoz josten zuen, eta nola lotsagarrikeria honen gaitzesteko gaztediak epaiketa bat antolatzen duen, azkenik Marxapipirat dituelarik biak bidaltzen. Antzerki honetan Agramon erregea epai betearazle gertatzen zaigu, baina bikotearen familia Frere izeneko baten medioz aterako zaie bidera jendarmeei, bataila emanez eta bikotea aske utziz.

Agramonten pertsonaia *Saint-Louis* pastoralean ere agertzen da, baina turka bezala eta ez hemen bezala errege, benetan bitxia dena, eta Agramontesak herri xeheak erregetzat edo jotzen zituenaren seinale eta adierazgarri. Erdi Aroaz gerotik Agramontesen eta Beamontesen leinuak elkarri gerra egiten bizi izan ziren, batzu Espainiako erregeen eta besteak Frantziakoenen alde lerrotatuz eta jokatzuz. Aingeru Irigarayk deuseztatu nahi izan du egin ohi den topikoa, alegia, agramontesak euskaltzale eta beamontesak erdaltzale zirelako, adibide bezala emanez Beñat Detxepare bigarren hauekin kokatu zuela bere burua eta

horregatik gartzela sufritu beharrean aurkitu zela. P. Boissonade-ren *Histoire de la réunion de la Navarre à la Castille* delakoaren berrargitalpen bat aitzaki bezala hartuz komentatzen du hori Irigarayk [1981].

Esan dugu, nola *Malkus eta Malkulina* astolasterrean majiarekin zerikusterik zeukaten gaiak ukitzen ziren, baina ikus dezagun hari nagusia. Lehenik, Malkusek, elkarren jelsiaz beterik dauden Albina, Arihun eta Arieder neskatilak lehia bizian ezartzen ditu, eta ondorioz Arieder, pollitena eta ahulena dena, kolpez eta uheldoz beteta, sendatzearen aiuta ematen dion barberarengana joan beharrean aurkitzen da.

Mediku eta barberak oso begi kritikoz ikusiak daude eta pertsonaien nortasunen adierazteko moduan ageri da astolastergileak ikuslegoa irriarazteko duen borondate eta helburua haien kontura. Bedezia eta apotikariek ez dute gehienetan izaera, nortasun berezirik ere, beraz, arketipoen moduan jokatzen dute eta beraiez ez da espero erantzun dezaten ez bada ohizkoen moduan, aurre-iritziak eratu dituen usteen arabera. Gauza bera esan daiteke estatu erakundeetako beste pertsonaieztaz, hots, justizian parte hartzen dutenen prebosteaz, jujeaz, sustitutuz, abokatuez, eta beste lege-gizonez. Medikugoaren partaideek marioneta gisara jokatzen dute, zeharo era konbentzionallean inongo nortasun, ez psikologia adierazgarri sakonik gabe.

Aiuta eta labamentuen sendagarriak beti modu berdintsuan erabiltzen dira irri eta burla egiteko. Ohar gaitzkeenez XVIII. mendeko astolastergileek far eta irri egiten dute, txarlataren lepotik, Erdi Aroan eta Errenazimenduan herri xeheak ohi zuen bezala.

Maxime Chevalier ikerleak dioenez ere, satira ez da gehienetan hezur eta mamizko pertsonengan osatzen, irudi huts eta izaki konbentziosko diren batzuegan baizik, eta adibidez, Espainiako Urre Aroan agertzen denean bere ogibidez edo ofizioz definiturik pertsonai irrigarriren bat soma dezakegu honek folklorea dituela bere erro eta sustraiak [1982:142].

Malkulinak, Ligi alargunak okupaturik uzten duenean, honi esposa dezan eskatzen dio, baina honek popatik hartzera bidaltzen du, lotsagabeak, doterik ez duelako. Andere gaisoa sorgin batengana doakigu kontsolatzera honek botatzen dizkion kartekin. Asmalariak Ligi sekulan ez duela esposatuko, esaten dio, eta beste alargun bat bere sareetara erakarri beharko duela. Honela bada, Kotxo alarguna liluratu nahiz hasten da, baina azkenean Benusen arartekotasunaz Malkusekin ezkonduko da.

Gaztediak astolaster batekin mehatxatzen ditu ez badute ohizko zerga ordaintzen. Hasieran kupel erdi bat ardo agintzen badiote, geroago damaturik, beraiek edateari eta gauzez ezkontzeari hobesten diote. Gaztedia, ordea, jakinaren gainean delarik, gauero aha-paldi gaiztoz lagunduko ditu, eta Belot apezak latinezko eta gaztelaniatzko zirtzilkeria eta lis-keria frango ondoren koplak honekin bidaltzen ditu:

*Eta ene exorta  
orai finitien deiziet,  
adar haundi bedera uzkuti  
desiratzen deiziet.*[570.b.]

*Mehalzu eta Benus* hala nola *Saturno eta Benus eta Malkus eta Malkulina* astolasterretan apez bera agertzen zaigu, edo hobe esateko, izen berekoa: Belot. Leopoldo Irigarayk dioenaren arabera izen honek bakarrik lo egiten duena esan nahiko luke, baina gu beste hipotesi bat aurkeztera ausartuko ginatke. Jean Batiste Belot, XVII. mendeko apez idazle kiromantiko ezagunarena litzateke. Honek obra haunitz idatzi zituen eta horietako batean irakur daiteke,

adibidez, sudurra ilargiaren eraginpean dagoela, ezen honetarik buru-muinaren zikin-kondarrak irteten diren bezala, halaxe bere eraginez mareatzen ditugu hainbat susmo eta bafada hemen behean, ilargia lurretik hain gertu denez gero [Givry, 1966].

Baina nola iritsi ote zen astolastergileengana idazle honen izena? Gure ustez, agian «soka-literatura»-ren bitartez, «littérature de colportage» edo «literatura de cordel» delakoa-ren medioz. Espainiako kasurako, adibidez, María Cruz García de Enterría-k esaten digu [1973:372], gizartea hobekien ispilatzen zuen jeneroa antzertia bazen, azpijeneroa soka-literatura zela, eta *La Baltasara*-ren kasuan bezala (1630), garai haietan uste baino gehiagotan gertatuko zela «pliego» delakoen erabilera iturri bezala beren antzerkietarako antzerkigileen aldetik. Beloten kasurako ez ukan arren argitasun gehiegirik, pentsa dezakegu halako zerbait gerta zitekeela Frantziako hegoaldean.

Belot bezalako apezak kritikagai eta kritikagarri izango ditugu, bereziki hiru arrazoirengatik: a) bere emazteenganako zaletasunagatik, b) bere diru eta tripa-zaletasunagatik, eta d) darabilten hizkuntza ulergaitz gertatzen zaiolako herri xeheari. Neskatzak bere zerbitzurako eta plazerako gordetzen dutenaren bertsoa ezabaturik aurkitzen da, epaileak gogorxkotzat joko baitzuen seguruen. Hona nola agertu den *Ardeatina* eta *Ludobina* astolasterrean:

*Oraiko neskatilak apezan  
bonuretako dutuzu,  
haur batheia sari aldikal  
ukhen erazten direzu.* [9, ezabaturik]

Koblakari jeloskorrak badirudi gauza sagaratuen eta lurtarren arteko truke interesatua ez zuela ongiegi ikusten. Sabelean eta diruan ere gehiegixko arduratuak direlako, hots, tripazale eta diruzale porrokatu bilakatu direnen aurkako bertsoarik ez da falta ere:

*Bena ezkuntzati kanpo  
beste okasionetan  
ene pakatzeko  
sosik ezta jentetan,  
[...!]  
Jaun anderiak berala  
belaunka zitie,  
aspaldi askaldu nahirik  
hebetxe naukazie.* [549, 552.b.]

Nabari da astolastergileak bere boterea darabilen egoitzan, hau da, herriko plazan, merkatuan edota ikuskizuntgirako hautatu duen beste lekuren batetan, Erdi Aroko usadioari jarraikiz, beste botere eta aginteengandik, alegia, Elizarengandik eta Indar Zibilengandik errezibitutako pairamenduez mendekatu nahi duela, bidenabar kexu delarik apezek darabilten hizkuntza ulerkaitza eta konpreni ezina dela eta mintza zatzaizkiela euskaraz eskatuz:

*Bena jaunan lati hori  
eztizigu kunprenitzen,  
utzulaguzu uskiarala,  
eia zer erran nahi den.* [320.b.]

*Saturno* eta *Benus* antzerkian Saturnok Jeanneton eta Benusi biekin esposatzea agintzen die, hauek elkar joka, atzamarka eta zimetatik tiraka hasten dira, azkenik Benus garaile irteten delarik. Erabakitzen du orduan Saturnok Benus hartzea emaztetarako. Baina ohi beza-

la gaztedi epailea ez datza lotan, eta koblari bat aitzindari dutela gauero ahapaldiz eta oihu lizunez oparituko ditu ezkongaiak loak hartzetik galeraziko dietelarik. Orduan Saturnok bere Kognado lagunari eskatzen dio auzapezari erredu diezaion, galeraz dezan gaztediak antolatuturiko astolasterra. Alkateak, aldiz, ihardetsiko dio, usaia zaharregia dela debekatzeko eta entzun nahi ez badute gauza desegokirik etxetik irten gabe egon daitezela, leihoak itxita. Saturnok amorru biziz Donapaleura eta behar bada Pabera auzitara joko duela eta gaztedia salatuko duela, dio, baina besterik gabe ezkontzarekin batera amaitzen zaigu antzerkia.

Auzitara jotzeko ohitura hau oso hedatua zegoen Zuberoa aldean eta nekazari herrietan ere halaxe da. Legearen prozedura ez zitzaion arrotza jende xeheari, zeren eta garai haietan pertsonak eta auzoak beren sos gutien kaltetarako izan arren, sartzen baitziren auzi luze eta korapilotsutan beren interesa pribatu eta publikoak zaintzearren, orduan eta beharra handiagoga, orduan eta berea edo ustez hala zeukatenaren gogotsuago zaintzeko asmotan.

Astolastergileak ematen dituen epai-datak modu irrigarrian ematen ditu, hala nola abokatuen ustezko solas dotoreak, nola hauen artean sortzen diren eztabaida xebreak. Solas hauetan justizia jendearen kritika ikusi behar da, noski, ezen xuberotarrak nola bearnesak edo beste herri ttipietakoak beraiengana liskarrak handiago ez zitezen jotzen bazuten ere, abokatuen eta horrelako jendearen gehiegikeriek deskreditoan erorarazi baitzituzten.

Zuberotar antzerkiak kanpokoan duen eraginik bakarrenetakoan, hau da, Casaurang de Lanne-k moldatu zuen *Phantzart* pastoralean ikus dezakegu epai-mahai hauen diruzaletasun eta erosgaitasuna bearnesez den bertso honetan:

*Quouand me daret  
mille escuts tout adare,  
nou l'eslargiri pas,  
ni peu bien de Suhare.*[1978:130]

Astolastergileak bere baitan argi eta garbi ikusten du antzeztan ari dena ez dela istorio asmatu bat, ez fantasiak kreatua, erregeen kontu huts bat, pastoralak izaten ohi ziren antzeria, bizi-bizirik, xinpartak eta garrak sor ditzaketen gertakizunekin ari dela jokoan. Esate baterako, *Petitun eta Petik-Hun* (Behetik-On) zintzarrotsaren lehen kobletan hauxe dio kantariak:

*Bi hitz xoilki erranen dut  
egungo gure solasaz,  
eniz haboro mintzaturen  
istoria zaharraz.*

*Ditzagun utzi erregiak  
bere zentruetan,  
permi ezadazie sar nadin  
herriko egitekuetan.* [1-2.b.]

Gizon harroputz eta hantusteak, andere kaskarin eta kaskarot, alargun eta alarguntsak, emaztegai eta senargaiak, elkarri adarra joaz, eginez, sortuz, eta karreiaraziz, kortea eginez tabernetan, festetan eta erromerietan. Janedanak, pott eta haserreak, bortxatze, ezkontze eta dibortzioak, lan arazoak, uste eta sinesteak, hau da, herri baten eguneroko gorabehera eta egitekoak agertzen dira, eta denak izango dira bai irrigarri, bai kritikagai, bai mintzagai.

Giza-maila guztiak ere, abokatak eta legegizon diruzaleak, tratante gezurti, emazaleak, neskame ohera errazak, apez tripazale eta neskazaleak... Inor ez da geldituko ahapaldi zorrotzik gabe, sorteguneko izarrak emanikako patuaz biziko baitira denak, Saturno eta Benus-en bertso xarmant hauek adierazten diguten bezala:

*Igande eguneti  
arren nitzaizie hasten,  
ordian sorthiak jenthe haundieki  
adiskide dira izanen.*

*Astelehenian sorthiak dira  
hun marxant izaiteko,  
trafikant haundi eta  
itxasorat juaiteko.*

*Asteazkenekuak dirade  
abil eta xotil ezinago,  
istoria egile eta  
jenthen liberti erazitzeke.*

*Ostiralian sorthiak  
hanitx dirade amorus  
bena etzaiela haietarik  
ihurk sekula eros. [248-251. b.]*

Eros da, dena den, astolasterretako ardatza eta gai nagusia. Bajtin-ek dioenez, mundu erreala deitzen dugunaren alderantzizko irudi hutsa, ihauterietako mundu barnean sarturik dagoena. Antzezkiuzuna, beraz, eta Zumthor-en gogoetei jarraikiz, ez litzateke ihauteriaren ispilu eta modu bigun batzuen adierazpena baizik, non sakoneko bortizkeriak irriaren medioz, samurtu, eztitu eta goxatuko lirakeen. Erosa era ezberdinetan ager daiteke: a) Eros iragarria, b) Eros iluna, d) Eros askea, eta e) Eros soegilea, bezala.

Eros iragarria, esan nahi baita, zenbait aldiz xehetasunak ez baldin badira hitzez eta ekintzez adierazten antzezlekuan, ikuslegoaren irudimena pizten dela bikotea pot eta besarkadaren ondoren agerlekutik erretiratzen denean.

Eros iluna, alegia, emazteak senarra jeloskor itzultzeko darabiltzan trikimailuak. Dioenean, kasu, berak nahiko zukeen egoera sortzeko, lagunak ere baduela anitz izkutatzeke. Honek tradizio luzea du literaturan, adibidez, *Les quinze joies de mariage* deituan, zazpi-garren bozkarioan, senarraren lagunak honen emazteak adarrak ezartzen dizkiola salatzen dio eta susmo hori kontra bihur dadin emazteak erantzuten dioenean senarrari bere lagunak ez duela bakean laga, eta hobe duela isiltzea.

Eros askea, hau da, Eleonora pertsonaiak argi eta garbi aitortzen digunean bere senarrak ez duela ezertxo ere balio eta horregatik dabilela gaztetto batekin, neskato guztiei aholku hau egiten dielarik, ez dezatela har zerbitzu kaxkarrik egin dezakeen gizonik, ongi kontenutziko dituen gaztea baizik.

Eros soegilea, alegia, senarrak dakusanean nola bere emaztea jokutzen ari den beste batekin eta deusere ezin dezakenean egin, hark astintzea eta jipoitzea ez badu nahi.

Dena den, mingots eta mikatz diren egoera hauetan irriak askatzen ditu umoreak, Bajtin-ek dioen bezala, gorputzaren zenbait parte irrigarriei esker: sabela, sudurra-zakila, ahoa eta ipurdia. Hona hainbat eta hainbat adibideren artean bat *Malku eta Malkulina*-tik hartua:

*Eztiala zeren ukhen  
enetako maleziarik,  
ene gati sar ezok  
sudurra uzku zilhoti.[581. b.]*

Sudurra ipurdiko zulotik sartzea irudi bat besterik ez da, ezen Laurent Joubert-ek dioskunez [1579] herriarengan bazen sineste bat zeinen arabera, sudurra zakilaren ordez erabil

zitekeen. Noski, irudi irrigarri honek badu beste bat pareko, berdintsu deritzaiguna, hau da, ipurtzuloan musu ematearena, eta *Saturno eta Benusen* honelaxe agertzen dena:

*Berri jiten denian  
jan doa emon ezon,  
eta gero ene gati  
uzku zilhuan pot izon. [101.b.]*

Ezaguna da leku berezi horretan pot egitea Akelarreetako usadio eta ohitura zela, Aker Handiari zor zitzaion eskaintza. Ekintza honi buruzko irudiak ikus daitezke XVIII. mendeko idazle den Guaccius-en liburu batean. Era berean Rabelais-en pertsonai batek izen bera darama: *Baisecul*, *Uzkupot* bezala itzuliko genukeena. Tradizioak kontatzen duenez, Rabelais-ek onartu omen zuenean Aitasainduari bisita egitea Erroman, baldintza honekin izan omen zen, alegia, ipurdian muin ematerakoan garbia ukan zezala.

Astolasterretan deabruak beti behe aldeko kontuekin dabilzkigu ia beti solasean, hala Satanez Buljiferri dienean *Bubane eta Xilloberde*-n:

*Bulgifer, hik behar duk  
ipurdirat juan  
eta hire majia ederrak  
untsa enplegatu han. [33.b.]*

Belot apezak senar-emazteei bezalaxe Petit-Jeanek gauza beretsua opa die Ricolorri eta Sebadinari, hots, kakeria eta adar bana ipurtzulotik, egiten duen aipamena ez dakigularik zein liburutako kapitulutikan harturik duen:

*Idoki dit breset bat  
lehen kapituluti,  
desiratzen daiziet kakeria  
adar bedera uzkiti.[77. b]*

Rabelais-engan bezala astolasterretan naturaren irudi berdintsuak ageri dira, batipat, «zulo»ekin ikustekorik dutenak, eta harengan bezala ikus dezakegu herri irri tradizio luze baten finkatze modu antzeko bat dela. Behekaldeko zuloetatik sartu eta ateratzen direnak bezalaxe ahokotik sarten direnak, garrantzi guttiago izan arren badute berea, jan edarien aipamenak, barazkari eta aiharienak ugari eta maizto agertzen direnez, antzezleriak gosegarriak harturik baitaude, estomaka flakatuak eta asetzeko amorru bizian.

Onoren emango dugu sukaldaritza zaharrea oinarritu nahiko luketenak beren menuren bat paratzeko astolaster ezberdinetarik ateratako jan-edarien zerrenda:

### **Hasierak**

Salda

Phorru salda

Arrusta (Ardo-salda)

### **Tartekoak**

Arraultze muleta

Trantxa eta arraultziak

Oilo eta Oilaskoki

Ahuine

Aretxe (Gresilan eta gerrenian)

Axuri saiheskiak

Erbia

Haragi eta azak

### **Desertak**

Mihiki saltsa

Mestura (Taloa)

Pasteix hotz eta sagar errea

Intzaurreak eta hurrak

### **Edariak**

Pintu bat ardu

Mahatsarnua

Bordeleko ardu huna

Kafe ezta eta agardenta

Ihauteriaren «filosofian» legez, liturgi ekintza garrantzitsuena, antzinateko erlijioetan bezalaxe gizon-emazteen arteko plazer, harremanak ziren, gordinsko esanik, larri jotzea, eta honi buruzko esamoldeen ugaria geroago aztertuko badugu ere hona hemen zerrendatxo bat: *antatu, bisita egin, bortha zabaltu, erautsi, estali, etzan, ezagutu, ezarena, floria ereman, frekentu, gorteiatu, khortia egin, gozatu, hunki, ithurria xahatu, izorratu, partida jokatu, algar kontsolatu, kota pea hasta, lan egin, untsa libertitu, luma izkiribiguan sarthu, luma galdu, pharte ukhan, plazer kausatu-hartu-errendatu, negozioa praktikatu, puntzelajia eman, tresnak erabili, zankharteia freskatu, zaragoilaz arduratu, zerbitxua egin...*

Maiztasun eta ugaritasun honek nabarmentzen digun gauza hauze litzateke. Alde bate-tik, anderearen akats nagusi bezala ikusten bada etxean galtzak beraxek eraman nahi izatea; bestetik, ezkontzaz kanpoko sexu harremanak aski arruntak bezala onartzen zirela eta barka-garri zirela. Hau dela eta, ez lirakeke fartzak eta era berean astolasterrak anderearen satira bezala ikusi behar J. Ch. Payen-ek nahiko lukeen bezala, hots, nola-halako feminismo baten aurkako antzerkiak, edota A. Knight-en interpretatzeko eran, irriaren bitartez gortesau amodioak hartzen ari zen ospe eta famaren kontrako antzertia legez, baizik eta kontutan harturik, garai haietan herri xumeak ez zuela goi mailako jokabide haien berri, ongi dioen bezala J. C. Aubailly-k [1988], anderearen emankortasunaren eta sexu harremanen aurkezpen zabal baten gisa, bertan kritika ageri bada ere oso bigarren mailan gelditzen delarik.

Noski, giza pasioak izango dira antzezgai eta ez da inoiz ere salbuespenik emango. Aberats ala pobre, tradizioa hausten duenak badaki zertara arriskatzen den, eta egungo jokalaria, Duvoisinek dioen bezala badaki bihar, etzi edo etzidamu, akaso, bere burua uzta-ru beharko diola ohitura sagaratuari, eta Irri Jainkosari eskaini [1841:90ss].

XX. mendean, ordea, hainbat gauza aldatzen diren une honetan, astolasterrak aldatzea ere ez da harrigarri.

Hala, 1945.ean Frantziako Liberaziokoan, Arnegiko neska bat aleman batekin ezkondu zelako astolaster bat pairatu beharrean aurkitu zen. Mendeku politiko baten aitzinean aurkitzen gara, beraz, aintzineko nolazpaiteko «moralarekiko» zentzu hura aldatu delarik. 1974. urtean Iholdin eginiko toberetan errotazain batek udalarekin zituen arazoak izango dira antzezgai, eta 1988.ean Hazparnen eginikoan Kutsadura bilakatu da gai nagusi. Beraz, esan dezakegu, ohitura mantentzen den arren, eta antzezteko zenbait forma ere bai, politizatu egin dela, antzinako lehen helburu haiek aldatu egin direlarik, alegia, sexu harremanen bestaren oroitgarri zitezkeenarenak.

## **5. JAZKERAZ, DANTZAZ ETA MUSIKAZ**

JAZKERAZ, DANTZAZ ETA MUSIKAZ astolasterretako hizkuntzaz eta literatur balioez baino gehiago arduratu izan ohi dira frantses komentariogileak. Antzerkia hasi baino lehena-



goko parades eta kabalkatez mintzatu zaizkigu Duvoisin jauna bera edota Roby pintorea, dantzarien jazkera pollit eta koloreztatuak aipatuz, hauen jauzi arin, zalu, azkar eta harrigarriak, hauen nekaezina, zaldizko eta oinezkoen jantziak, bolantak eta bestelakoena...

Azterketarik sakonenetako Jean-Michel Guilcherek idatzirik dugu, eta liburu mardul batean hainbat eta hainbat dantzaren artean ematen dizkigu gaiari dagozkionak, eta esaten nola Irisarrin jaiotako B. Larraburu ezpartingilea parada hauen antolatzaileetarik bat zen, eta honek zioenez zenbait alditan 150etik 200era iristen zirela parte hartzaileak. Baina, martxan guzti hori ezartzeak diru xahuketa handiak eskatzen zuenez gero, ezari-ezarian galtzen joan zirela.

Eskuzkiribuetan ohar gutti agertzen da jazteko, dantzatzeiko eta kantatzeko antzeaz eta moldeez. Ikusi dugu gorago, nola Jakes Belakoak XVII. mendean eginiko astolaster baten berri ematen digun, eta bertan erabili ohi zituzten musika erremintak aipatzen: sartagin, eltegor, tupinautsi, pertz, joale, adar eta beste. Solasak gora emanikoak zirela, hau da, *harangues a hautes voix*, azpimarratzen digu Mauleko abokatak, baina beste zehaztasunik ez daukagu. XVIII. mendekoak dira, noski, lehen ohartxoak antzezteko moldeaz, eta gehienbat honelakoxeak dira: *erditi, eskuineti, ezkerreti, sar, jalki, paseia, mintza, bataila, jar*, eta horrelakorik.

Beraz, oso laburrak dira antzezteko «akotazioak». Jazkerari dagozkionetan, adibidez, ezer gutti aipatzen da, baina baditugu XVIII. mendeko bi albiste, komentariotxo bat merezi dutenak. Lehenbizikoa da, *Petit-Jean eta Sebadina*, Zalgizen 1769. urtean antzeztu zen astolasterren barnean agertzen zaiguna eta satanen jantziei buruzkoa. Honelaxe dio: *Satanak paseia ihiziko aropekila*.

Bigarrena da, Josef Egiategi, xuberotar filosofo euskaldunak ematen diguna 1780. urtean: *Mundu guzia ari delarik txarlatanen gisala, pastoraletan mozorroa bethi begithartian nahi girade agertu*. Badirudi, bada, Egiategiren garaian pastoralak mozorrotuta, maskaratuta ematen zirela. Benetan gauza harrigarria deritzaiguna ondokoak eta oraingoak ezagutuz. Are harrigarriago satanen jazkera, zeren eta orain beste era batean jantzirik ezagutzen ditugu, alegia, kapelu gorria urrezko lorez ornitua, xaka gorria urrez bandatua, galtza gorriak urrezko bandekin eta behe xuri brodatuekin...

Aldaketa hauek sataneriak apurño bat bederen mintzatzeko parada ematen digu. Zein ote dira Satanen etorkiak eta helburuak artegintzan eta antzertian bereziki? Aski zabala eta interesgarria dela gaia, uste dugu, eta hala pentsatzen zuten ere Erroman [1988] deabruetz eta mustroez antzerti biltzarra antolatu zutenek, adierazterakoan hauxe:

Il tema del mostruoso-demoniaco nell'arte e nella letteratura, e certamente complesso e suggestivo, per il patrimonio di memorie mitiche e letterarie, che esso eredita dalla classicità prima, e dalla tradizione medioevale romanico-gotica, poi, nel crogiuolo delle diverse culture, da quelle pagane dunque, a quella cristiana, con la sua peculiare riflessione filosofico-teologica, arricchita dai contributi successivi della civiltà araba e, infine, di quelle dell'estremo oriente.

Aipatu astolasterrean ehize jantziz irtete hutsak besterik gabe zer adierazten digu? Henry Rey-Flaud-ek aipatzen dizkigun ehiztari basati haien oroitzapen eta jarraia ote, agian? Edota Gari R. Muller-ek Erdi Aroan antzertian ia berdinak ziren zoroen eta deabruen arteko nahasketaren ondorio eta emaitza?

Argi dagoena, eta egun ere, sataneriak dantzarekin duen lotura da, eta ez kantarekin. Erdi Aroko Katalan antzertian bezalaxe kanta baldin bazen nagusi, zati komikoak errezitatuak, mintzatuak izaten ziren. Hildegard von Bingen-ek (1098-1179) bere *Ordo virtutum* musika antzerti ospetsuan, Jesus-Francesc Massip-ek komentatzen digunez, deabruari ukatu egiten dio musika dohainik, ezen, hau harmoniaren adierazle denez gero, ezin ezar dakiekeen beraxe gizonari kentzen, lapurtzen eta ebasten saiatzen diren satanei. Sataneria multzo

berezi bat da, gaizkiaren eredu dena, baina Satan, Aztarot, Bulgifer, Jupiter, eta Luzifer agertzen direnean «teatre gainean» bereaiekin da jende xehea gehien libertitzen, bai gurean eta bai kanpoko antzertian. Honelaxe zioen Boadella *Els Joglars* antzeztaldearen zuzendariak:

Uno observa que incluso aquí en Cataluña en los «Pastorales» o en las «Pasions», que cuando sale el diablo es cuando surge el auténtico teatro y la gente disfruta, y es lo que está esperando ver. Porque el mal es más espectacular que el bien, que adolece de algo, es más afeminado y acaramelado. Esto para mí es una teoría teatral. El mal es siempre más espectacular, tiene más colorido y más rasgos folklóricos. [1983:2]

Beste antzerti esperientzi zeharo ezberdin batetik, Marzeline Hegiaphal Xohütako errejentak ondorio beretsuak ateratzen ditu, antzertiari bizitasuna eta grazia ematen diotela satanek, dio:

Soizu, ezarriak izan zizun satanak pastoralen politzeko, erdi dantzariak baitira, batere gaizta-keririk gabe. Gorri bat, turk bat hiltzen zelarik hek infernilat biltzen zitzen, izigarri farrabanda, trapa bat, izigarri pollit zizun. Dantzak entraktak bezala dituzu, zerbitzatzen ere badute aktor bat arropaz aldatu behar dizu, eta orduan, arte hartan satanak sartzen zizun eta gibelian bazuen denbora aldatzeko. Pastoraletan eta xaribarietan jenden trufatzez, eta satan beti satan. [1984:9]

Ohar gaitzekenez Xohutako errejentak bi gauza ezberdin esaten dizkigu. Alde batetik, entraktak bezala direla sataneriaren sar-ateraldiak, eta honetan Vinson-ekin bat dator. Eta bestea, hau delarik funtsezkoena, jendearekin sartzen direla, ikusleekiko duten jokaera, alegia, hauekin trufatzen direla gelditu gabe, beren solasak lizun, lohi, zikin direla eta gaiztake-riaz beterik daudela. Funtzio berdintsua betetzen dute, oso noizpehinka agertzen diren jigganteak, batzutan izenik gabekoak eta bi kasutan izen bereziarekin, Ferragus eta Pyron. Honek daramatzen arropak hauek dira: bota handi batzu, txapel xut bat eta makila luze bat eta ahal bada –astolastergileak dioen bezala– bizar faltsu bat.

Webster-en ustetan sataneriaren funtsa greziar trajerian koroarena bezalatsukoa litzateke. Léon-entzat, aldiz, koroarena baino kontrakoroaren jokia beteko luke areago, hau da, Gaiztoen Koroa antzeko bat litzateke sataneria.

Dena den, eta egun, inoiz baino gehiago, deabruen helburua koreografikoa da, satanak baino saltalariak areago lirudiketela. Garai batean, Lhandek zioenez, mutikoak jada hamar-hamabi urte zutelarik hasten ziren beren lehen dantza saioak ematen, beren dantzari ikasbidean lehen pikoak egiten. Zalu, arin eta azkar behar zen izan horretarako, eta dantzari onaren baldintzak hauek ziren Pierre Ager «Garat» Basaburuako Arhanen bizi denaren iritiz:

*Zankuek behar diezue xuxen izan dantzan untsa aritzeko. Zanko sagarra aldiz, zaragolladunek puru, behar likezie zanko sagar ejer bat. Dantzariak behar dizu ere beharri huna, soniari, txululari untsa jalkitzeko. Dantziala hogeitabost urten altian duzu hobekienik ari.*[1981:129]

Ez bakarrik zango onak, antzezlariak beharko ditu, nabari denez belarri onak, entzumen aparta eta musika dohai berezia jarraikitzeke hutsik egin gabe antzezkizunari. Lehen eta azken pheredikiaren doinua, jakina denez, eta Gavel-ek ongi adierazi zuenez, kanta gregorianotik datorrena da, eta gorago esan bezala 1766. urtekoa dugun Oxamendi Arrosakoaren tobera kanta eliza kanta bat da, «Oi Bethleem» eguberriko abestiaren doinu bera du, eta Roques jaunarentzat, Languedoc aldetik sartutik (“De tout un peu”) gureganatu dugun kanta litzateke. 1788. urtean Olhaibin antzeztu zen *Juanik Hobe eta Arlaita* aipatu astolasterrean khantoreak kantatzen direla esaten zaigu:

*Ikusiren duzie kapitaina  
bere suitaren  
khantoren kantatzen  
alagranziareki. [121. b.]*

Ezaguna da xuberotarrek kantari onen fama dutela, eta beraien buruak euskaldunen arteko italianoak bezala jotzen zituztela XIX. mende hasieran Humboldt-ek Euskal Herririk bidai bat egiterakoan idatzirik utzi zuen bezala.

*Bertsetak phausuki eman eta gorati*, esaten du astolaster errejenta zen Hardoy oihanzainak. Baina ahots ozen, eder eta garbi batez entzun badaitezke bertsoak, eta noizpehinka tar-tekatzen diren khantoreak, ez dezakegu esan koplak beti neurri berekoak direnik. Silaben kopurua ahapaldi anitzetan bertsolerro batetik bestera asko aldatzen da, eta agian honen zergatia, bai gaztelaniazko eta bai beste hizkuntzetako epikan bezala, Lord-en hipotesiaren arabera ahoz batek esan eta beste batek kopiatzean legoke. Hau da, erdi ahozko eta erdi idatzizko tradizio baten aurrean ginateke [Deyermund, 1973: 99].

Irakur dezagun orain tobera baten deskripzioa, Jean Etxepare mediku eta idazle bikainak emana, 1896. urte inguruan Hazparnen ikusitakoa gogoan:

Beti bezala baziren lau zaldizkari: kapitaina bere lagunarekin, hunek neskato gazterik pollitenaren itxura eta soineko guziak baitzituen, bai eta ofiziera, bere lagunarekin hau ere; bolantak, bere buruaren gainean panpa batzu, handi bezain itsusiak, inarosten zituztela; basa-andereak, marimutiko batzu bezala emanak, dena hixtur eta jauzi- andere xuriak, hok bilduago, gerriz pinpirina bezain hertsu, zangoak dantzan erne eta jarraiki, behako ezti batekin artetan elgarri agur egiten zutela; kaxkarotak, dena xingola eta kuxkula, dena lore eta urre, espartinetarik poneteraino, hiru juje, beharri aitzinetan gainbehera bizar-mail bederarekin, legego liburu gotorrak galtzarpean; bi uxer, sorjesak beren ausartiaz; lau jandarma; bi koblari; bos-pasei zirtzil piltzarrenetarik; senar emazteak, bi astoren gainean, aitzingibelka; eta, erran gabe doa, Donianeko musika.

Gorri, xuri, ubel, hori, musker, urdin, bainan guziz gorri, iguzki samin batek distiarazten zituen jauntzi guziak jabeen harat-hunatarekin lilluratzten baitzuten begia. Plazaren inguruan, lau lerrotan, ganka elgarri, behariak etzitazken ase so egoitetik.

Betbetan ixildu ziren soinuak, eta barrika batzuer taula batzu itzaturik egina zen tronaduraren gainerat iganik, buruz buru guduak hasi ziren koblakariak, kantuz. [Charrington, 1984:337]

Lapurdikoa eta zehazkiago hazpandarren modu ikusgarri honetatik bereizten zen zertxobait zuberotarren modua, eta hauxe da, hain zuzen, Hardoy santagraztarrak idatzirik utzi ziguna *Tuduk eta Ratafia* jokaterakoan. AINOZKURTSNI deitu zuen era kriptikoz, hots, atzekoz aurrera irakurriz, INSTRUKZIONIA. Astolasterren antzezmoduz gelditu zaigun ohar bilduma bakarra denez hemen emateari egoki deritzogu:

## INSTRUKZIONIA

Entradaren emiliaren gibelian, bedezi mithila drapeu bateki; entrada fini eta oro jin herrokan; triate aitzinian eraits monturetarik eta khirstien martxan igain triatialat, triatiaren eskuineko gaintian «en bataille» triate beste basterari buruz, azkena heltu denian Tuduken seinale bateki oro batetan pharti eta ber urhatsian eta herroka xuxen etxekiten delarik juan beste triate bazterrialia hara helzireki oro batetan utzul eta ekhura.

Triatialat sartzian bezala berriz herrokan pharti, bethi drapeua aitzinian, bestiak haren ondouan eskuineko triate kantuala, han jenter buruz inguru bat egiten delarik, oro retina, gizunek orok khana bedera eskian, emaztek esbantail bedera.

Horik sarthu onduan jin hala bi satanak eta Pyron, monturetarik eraits, triatialat igain dantza phiko bat eman eta retina eta gero has kaierian den bezala.

Bezimenta, Anderiak ahal bezain eijerki, sustut Ratafia eta Grosilla; gizunak ahalaz oro pantalu xurieki, paltoekin eta xapelekin, Pyron bota handi eli bateki, xapel xut bat eta makhila luze bat eta ahal bada bizar faltsu bat.

Eta hori jelkitzen denian bethi Turken marxan, eta Satanak eta Pyron bethi eskerreko gaintitik jelkh eta retina; Satanak mintzatzen dienian, bethi khurutxe promena, Ratafia eta Tufulia ber gaiza, Ratafia ere eskerreko gaintitik ebil, Grosilla ere bai neskato akordatzian eta Klementina ere bai espusa artio. Tuduk eta Ratafia separatzian bethi besarka gerualat, artetarik ere bai. Belkader eta Grosilla ere ber gaiza salbu neskato akordatzian.

Ratafia bi jelkhaldi egin onduan, triate erdian apheza jar kaidera batetan eta Ratafia jin eta kofesa eta rezebitzera eman aphezak bere kaierian dian lehen berset hura emaitzez, gero hantik landa beste bi aldiz komunia kofesatu gabe aphezak emaiten tialarik beste bi bersetak komuniatze-  
ra emaitiareki.

Aphezaren arropa, pantalu beltzak eta gero arropetan gaiñen athorra xuri propi bat, gerren-  
tzian zeta zinta gorri bat, lephotik behera beste bat eta buruko zerbait gisatara bunet karratu bat, besuetan ere zeta arribant zunbait.

Bersetak bethi triate bazter batian has eta bestiala bait urhent, eta algarreki elkhitian triate bazterrian lehena erdialat buruz eguruk azkena jelkh artio; azkena jelkh onduan harek egin khanaz seinale bat eta oro pharti eskerreko zankhuaz eta ber urhatsian ebil eta ber linan, bersetak phausu-  
ki eman eta gorati eta berset bat ezpada untsa edo berantegi hartzen egin lehenago unguru bat haboro eziez berseta gaiski eman. [Hérelle, 1923]

Beraz, sarrera eta arribada ohi zenez zaldiz, zamariz, astoz, edota mandoz egiten zen. Gero antezlekura igotzen zen, eta antezmoduak badijudi berdinak zirela, astolasterretan, trajikomerietan eta pastoraletan, eta jazkera-dantza-musikak halaberetsu. Lekuan-lekukoak, noski.

Turkak eta satanak beti ezkerreko atetik sartzen ziren. Halaber Klementina esposatu aurretik ikus dezakegu nola sartzen den ezkerreko atetik eta ondoren eskuinekotik.

Ateen sinbologia bezalatsu, koloreena eta bai dantzen bai ibilaldiak emateko modua xit garrantzizkoa da. Hala, dekoratuen aldaketen funtzio betetzen dute anitzetan, irudimenaren laguntzaz. Giristinoen eta turken martxan Hardoyk idatzitako astolasterraren pertsonaiak ibil-  
tzeak garbi eta argi uzten digu dramaturgia paretsu baten aitzinean aurkitzen garela, baina maiz azpimarratu bezala istorioak eta hizkerak dira ezberdin. Beraz, has gaitezen azken hauetaz, hizkerez eta hizkuntzaz hitzegiten.

## 6. HIZKUNTZEZ

EUSKARA erdal antzertian agertzen den era berdintsuan, alegia, helburu irrigarri batekin eta nola-halako benetazko egiantzaren islada eta itxura eman nahiz, gertatzen dira erderak astolasterretan. Morroiak Gaztela aldean izan baziren Errenazimendu-Barrokoan *El vizcaino* deritzanaren irudia sortu zutenak gaztelaniazko antzertian (Gaspar Gómez, Martín de Santander...), honen paretsuko zerbait gertatzen da XVII. mendeko frantses teatroan ere (Raymond Poisson, Hugues de Picon...), eta euskal antzertiak, halaber, honen kontrirudia sortzen du.

Kontrirudi hau ikus dezakegu Telletxea-Lekuona jaunek argitaraturiko De La Gandararen *Gernikako Gabon Kanta* 1764. urtean abestu eta antzeztu zirenetan. Hau da, bizkaitar jatorra-  
ren euskarari kanpotarraren, *muxhila* delakoaren euskara mordoiloa kontrajartzen zaionean, hots, kanpotik iritsitako eta euskara gaiztoz mintzo den morroiarena.

Astolasterretara itzuliz bidenabar, Piarres Topet Etchahunen *Eihartxe eta Miñau* khanto-  
rearen lehen bertsoan bost hizkuntza ezberdin entzun ditzakegu: latina, frantsesa, gaztela-  
nia, bearnesa eta euskara, hain justu eta honelaxe hain zuzen:

*Sed libera nos a malo sit nomen Domini;  
Vamos a cantar un canto para divertir;  
Jan dugunaz gerozti xahalki huneti  
eta edan ardua Juranzunekoti*

*Chantons mes chers amis,  
Je suis content pardi,  
Trinquam d'aquest bun bi  
Eta dezagun kanta khantore berri.*

Bertso alai eta umoretsuok Lafonen hitz haiek gogorarazten dizkigute, zeinetan esaten digun Pirineoak ez zirela izan garai batean muga hizkuntzentzat ez eta bi aldeetan, edo hobe esan, haran ezberdinetan bizi ziren biztanleen harremanetarako. Etxahunen adibide argi honek adierazten digu nabarmenki mendi gailur garai haiek ez ziotela eragotzi aldameneko jendeen hizkuntzetan gaitzeari.

Pere Ramirez i Molas jauna antzerti elebidunaz mintzatzen ari zaigularik, Bartolomé de Torres Naharro (gaztelania-italera), Gil Vicente (gaztelania-portugesa), Lluís del Milà (gaztelania-katalanera) eta Joan Fernandez de Heredia (gaztelania-katalanera) antzerkigileen adibideak ekartzen dizkigu, eta esaten antzerti elebidun honen grazia bere herrikoitasunean aurkitzen dela. Bere ustez, aldiz, antzerti poliglota ematen denean herri moldeetatik urruntzen eta konbentzio kultoetara hurbiltzen dela *el teatre escrit en dues llengües pot mantenir, i sovint mante, un caracter popular o popularitzant [...] En canvi, el teatre políglot s'allunya de les arrels populars i incorpora convencions cultes* [1988].

Ez da hala gertatzen, ordea, astolasterretako munduan, Zuberoa eta batipat, bertako zenbait herrixka, nola Santagrazi, hizkuntza ezberdinen gurutzetoki eta topaleku gertatzen baitzen.

Has gaitezen etsenplu xume zenbaitekin. Latin aipamenak abokaten eta apezzen ahotan agertzen dira, baina maiz latina bera aldaketen ondorioz, –astolastergileak latina ez zuelako ezagutzen edo irrigarri zerabilenaren adierazgarri delako– ia ulertezina egiten zaigu. Zenbaitetan latin esaldiek elizkizunen parodia itxura hartzen dute eta hitz joko irrigarriak egiten, hala nola irakurtzen edo entzuten denean: *fiat bolont astua*. Ihauterietako trajikomeria den *Jaun Phantzart* izenekoaren lehen pheredikian beste bertso hau ematen zaigu:

*Esterqus canis in ore bestro  
et lepus meus in ore meo,  
St. Fouren lehen kapitulian  
ageri dira hitz horik oro. [Mozos, 1986:190]*

Esan nahi baita, Fou sailduaren edo Zoro deunaren lehen kapituluko hitzak direla, hone-lai itzul daitezkeenak: zakurraren kaka dela hiretzako eta ene erbia neure ahorako. Jacques Heers ikerleak Zoroen Festak eta ospakizunak aztertzen dituenean, beste ikerle batzuren irizien aurka dihardu, hauek mendeetako ilunbetan errazegi murgiltzen ohi direlako, eta bere ustez, kristau erlijioarenekin eta apezpiku-kanonigoen arteko eta boterearen erdiestearren ziren borroken ondorio eta adierazle liratekeelako, eta hauen aztarna eta etorkiaren datak zahazterakoan gehienez urrutira jota XIII. menderaino igo daitekeelako.

Adibidearen bertsoak badu zerikusi nabarmenik Leopoldo Irigarayk bildu zituen eta Txomin Peillenek *Igela* aldizkarian argitaratu zituen xikitoen artetikako honekin:

*Erbiak lau zankho,  
lauak khako,  
khako batu khako,*

*khaka dela hiretako.*

Artzainen irri solas hauek badute paretsurik Italian, *stornelli* delakoetan, eta latin zatiño horren aldaerak behin eta berriro aurki daitezke astolasterez berdinetan, pentsarazten digunak formula irragarri bilakatu zela. *Xiberu eta Marzelina*-n honela ageri da:

*Eztea canus et cuius  
in manduca meo. [298. or.]*

Ez zuen noski ulertzen astolastergileak edo kopiatzaileak entzuten zuena. Bai, ordea, *Rekokilart eta Arieder* idatzi zuenak itzulpenarekin ematen baitigu:

*Intercus canis ore vert.  
Latiz dira hitz hoiak oro,  
uskaraz erran nahi dik,  
Horaren kaka dela harien orendako.[222.b.]*

Esaldi berdintsu hauen eta beste halakoen errepikatzeak, molde eginak bezala, tradizio baten ezaugarri bezala jo ditzakegu, hau da, herriaren ahoan erabiltzen ziren formula hedatu ezagunak bezala. Kasu honetan seguruenik apezan sermoietatik edo errezoetatik antzerkira iraganiko irri solasak. Era honetara sortzen omen den irri literatura oso ugari eta oparoa dela hizkuntza arrunt eta *sermo plebeius* delakoa darabiltzatenetan, dio, Mijail Bajtin errusiar ikerle ospetsuak [1987].

Ohar gaitzke, bada, erderakadek antzertian funtzio berezi bat betetzen dutela, gehienetan irriarekin eta kritikarekin lotua dagoena. Frantseraren kasuan, adibidez, hau darabiltenak epaileak, idazkariak, jendarmak, notariak, abokatak dira, hots, legearren egitura osatzen dutenak. Beraz, arrotzak. Hauek, lhauterietako kauterren gisara, anitzetan frantses itsusi batean mintzo dira, Auvergnako eran, kopistaren frantses eskasa ere nabarmentzen delarik.

Frantsesaren presentzia maila ezberdinetan ikusten da. Batzutan jokalaria bi bertsolerro ematen digu hizkuntza batean eta beste biak bestean. Batzutan bertsolerro bakarra dago frantsesez, eta bestetan bertso osoa. Ikus ditzagun adibideak. Honelaxe aurkezten ditu jendaurrean mediku berberak, txarlatanen moduan bere dohainak *Malku eta Malkulina*-n:

*Bonjour tous le monde,  
haur naiziela barbera,  
plusieurs operations,  
egiten dudana. [289. b.]*

*Bubane eta Xilloberde* astolasterrean, esate baterako, jugiak, epaileak honelaxe neur-tzen ditu emaztearengandik senar gizaraxoak hartu dituen kolpeak, frantsesez:

*Il y a cinq cou de baton  
trois pouce de longur,  
une pouce de largur,  
et un pouce de profundur.[68. b.]*

Frantses esamoldeak, ordea, ez dira soilki arrotzen ahotan ageri, hauen eragina herritarrengan haundia izan baita eta egunoroko ogi bilakatu baitira. Hona hemen maizenik eskuzkribuetan irakurtzen ditugun batzuek:

a) ALE: *ale diablesa, ale bandit paria, ale pergut paria, ale ale pergut eskeliak, ale gormant xarra, ale apho zankua...*

b) EBIEN: *Ebien Marzelinalaren unude bazira; Ebien Mesieur Lucus I cela s'il est vrai I zer nahi duzu Arnegik egin dezan...*

c) VOILA: *Voila qui fet Satan I hori untsa duzu phentsatu; Voila qui fet nihaur...*

Eta horrelakorik. Birauak eta madarikazioak esaterakoan agertzen ohi dira maizenik beste hizkuntzenganako joerak. Hala jokalariaik botatzen duenean edo *futre*, edo *karako* Gaztelaniari gagozkiolarik pastorelegileak beti estimu guttiko pertsonaien ahotan ezartzen bide zuen. Agurra eta ihardespina Xiberu eta Espainularen artean honelakoxea da:

*X.- Ave Maria puisima.  
E.- Sen pecado concebida [106 b.].*

Bertso batean ager daitezke batzutan latina, frantsesa eta euskara ere, honako honetan bezala:

*Eberbous caromfactom est.  
Bazakit nik latia ere,  
et autremena ausi  
beste lenguaje hanitx ere. [384. b.]*

Beraz, argi eta garbi ikusten da hizkuntza ezberdinen, eta ez bakarrik biren, munduan murgildurik gabiltzala. Azken adibidea emango dugu. Belot apezak *Saturno eta Benus* antzerkiaren bukaeran ezkonberriei egiten dien lizunkeriez betetako sermoia edo solasa litzateke, bertan euskara. bearnesa eta gaztelania nahasten baititu, baina funtzio berezi batekin oraingoan, alegia, hizkuntza ezezagun bat darabilela helburu kriptikoarekin, hots, esaten dituen lizunkerien estalgarri:

*Siela nuela,  
nuela siela,  
sinqua mila muchacha  
una donseilla.*

*Tun yan se grise  
machana Biarne  
cosi padre dinero  
qul e vente.*

[...]

*Horri erran nahi duzu  
sar zitian khanberan,  
eta jenthe eguiten  
seriuski ari han. [314-321. b.]*

Hizkuntzez aritzerakoan beste arazo garrantzikoa agian, beste hauxe litzateke. Zergatik duten iparraldeko euskalkiek gaztelaniaranzko joera nabariago frantsesarenganakoa baino. Landetako basamortuak eta aldamenean frantsesa ez diren erromantzeen eragina eta hauekiko harremanak leudeke, dudarik gabe. Bego, ordea, hau oraingoz bere horretan, azterketarako ate ideki bat bezala beste batetarako.

Bukatzeko kapitulu hau, aipa ditzagun, gaingiroki bada ere, astolasterretan azaltzen zaizkigun xubererazko puntu xume batzu. Azterketa sakonagorik nahi duenak jo beza Larrasquet-en [1939], Lafon-en [1965], Moutard-en [1970] lanetara.

Bokalez eta bereziki ü bokalaz mintzatu gara eta ez gara, beraz, itzuliko gaira. Ageri da, ordea, hitz bat *Ardeatina eta Ludovinaren* hirugarren bertsoan merezi duena iruzkintxo bat. Eta hauxe da: *zaragoilak*.

*Ni ere aragiz nuzu  
eta zu bezala urruxa,  
zuintan nahi beinuke  
zaragoila liezaden ardura. [3.b.]*

Zaragoila hitza Lhandek dioenez [1926:1073] gaztelaniatik letorkiguke, gure ustez, ordea, eta Corominas-ek dioskunaren arabera [1954:840] ordea, *ue* diptongoa ageri ez denez, zuzenean arabetik, gaztelaniaren bitartekorik gabe iritsia litzateke. Arabeekin Erdi Aroan Zuberotarrek ukanikako merkatal harremanen ondorioz, praka moietaren hitza bereganatua.

Kontsonanteei dagokienez hona bereizgarri zenbait:

a) F- gontserbatzen da hitz hauetan bederen: *fanfarrun, fardatu, faxus, flambesa, fonzio-ne, fornitu, friko, fripu, funtsa...* Bada bat *fereta*, Lhandek beste aldaera batez ematen diguna, hots, *herreta* [436].

b) R- / VR- bezala ager daiteke, alegia, bi eratarata, bokala aurretik hartzen duela, edo gabe: *arrakunratu, errexistru, errepletzione, errege, rekunratu, rejistru, rege, representatu...*

d) FR-, GR-, KR-, PR- kontsonante multzoak, hau da, bigarrena dardarkari bat denean, bokal bat agertzen da zubi gisara, hala: *borogaintsa, garamatika, iskiribatu, perestia...*

e) Eskuzkiribu batzuetan -R- desagertu egiten da, ahozko hizkeraren arabera: *ukhu (ukhuru), bate (batere), erretia (erretira), eos (eros), geo (gero), libeakua (liberakoa)...*

Morfologiako adibide batzu:

a) -RA morfema erabiltzen da beste euskalkitan -NA litzatekeena, hala: *libera hamabiRA* sos...

b) -TAN morfema darabil beste euskalkitan -REN BAITAN/-RENGAN bezala agertzen dena: *Xiberutan uken nizu l ene amorioa plazatu...*

d) -SA darabil zenbait aldiz emetasuna adierazteko. Hala: *debrusa, burusagisa...*

Amaitzeko Zubereraren zenbait adierazgarriren errepasotxo hau ikus ditzagun perpaus elkartu batzu:

a) EZI...; EZI EZ: *ezi barda bezala/okupatzen bazira/sujet izanen zira; erraiten zizun harek ere/ezi etzela izorra; hobe luke gizonak/bere buria ithotzia/ ezi ez eta emazte/gaixto baten hartzia...*

b) -LA ezezko esaldietan: *eztuzu aparenziarik Marzelinak Arnegi trunpatu diela; Jauna estit sinhesten horik egiak direla...*

d) NUN ... -N: *enuzu batere phartituren nun enizan Jupiterreki...*

e) ZEREN ETA... BEIT-: *zeren eta ari beitirade egunoroz sortzen; zeren eta haur orai eza-gutzenbeitugu...*

g) ZUIN: *zuin libertituren duzu dantzan ...*

h) ZUINTAN... -N: *Malku erhaztuna erhian ezar ezarezozu zuintan ezarri behar den...*

...

Azterketa sakonago eta xehetuago bat eskatzen du astolasterren gramatikak, baina bego oraingoz horretan eta utz diezaiegun hizkuntzalariei eta gramatikariei beren lanetan eta hel diezaiegun guk bukatzeko literatur kritikari.



## 7. LITERATUR BALIOEZ

LITERATUR BALIOEZ baino areago kritikariek bere iritziak plazaratzen ohi dituztenean mintzo izaten dira saihets gaiez, barne egiturez eta ikusmoldeez baino areago moralarekin edo politikarekin ikustekorik duten gauzez. Honelakoxea da Julio de Urquijo-ren gogoeta hau, esate baterako:

*Canico et Beltchitine...* está, por otro lado, desarrollado en un lenguaje tan libre y grosero, que la representación de Canico et Beltchitine en cualquier pueblo de Vizcaya, Guipúzcoa o Labort provocaría unánimes y ruidosas protestas. [Aresti, 1971:12].

Aske eta lizun, omen zelako astolasterren hizkera ez zien eman lekuri bere errebistan (RIEV) zuzendariak, eta 1922. urtean, oraino xit gazte zelarik uste berdintsua agertzen zuen Piarres Lafittek, mintzatzen zelarik sataneriez:

Labur bide bat litekela sataneria guziaren edekitzea, hori bai, Satanez denbora sobera bade-ramate jauzika eta dioxka, dabiltzan gertakariekin deus egitekorik ez duten dantza eta tortiko batzutan. Ara berez, ezin aipatzeko harrokeria eta lizuneria moltzo bat liteke gutiago. Ezen sata- nek derabilzkiten solasak ardura izigarriak dira likitsak. [Haritschelhar, 1986:179]

Lizuneria, likitskeria eta horrelako aurre-iritzi moralak ez dirudi direnik funtsezko literatur arrazoiak, aztertu beharrean aurkezten eta planteatzen diren egiturak ongi lortuak diren ala ez. Hérelle-k, adibidez, beste ikuspegi ezberdin batetik aztertzen ditu, eta esaten Euskalerriko nortasun bitxia adierazten dutela astolasterrek eta interes handia daukatela, bertan ohitura bereziak agertzen direlako, herri hizkeraren esamoldeak, erretratuak, etabar.

Txomin Peillenek, bere aldetik Komiko Baliapideak Zuberoako Herri Literaturan aztertze-koan [1985:2], Aintzinako Erroman eta Grezian zerabiltzaten baliapide berdinak aurkitzen ditu. Halaber, Europan zehar Erdi Aroan non nahi ematen zirenen paretsuak ikusten ditu astolasterretan, eta irrigarriak diren elementu guzti hauek: erortzeak, medikuntzazkoak, mehatxuak, jendeen itxurari dagozkionak, zuloak, kaka, eta sendakuntzaren trufatze osoa.

Erretorika liburuek hamaika irudi sailkatu ohi izan dituzte, eta lehengo ikasleek, bederen, grekeratik eta latinetik zetozen izen pilo bat ikasi beharrean zeuden/geunden. Guk, ordea, Lafitteri jarraikiz bost zail bakarrik aztertuko ditugu: 1) Hots irudiak; 2) Hitz irudiak; 3) Joskera irudiak; 4) Gogoeta irudiak; eta 5) Erretratuak.

1) Hots irudien artean maizenik agertzen direnak aienek eta esklamazioak dira, guttiagotan aliterazioak: *A bugresa diable, A urde buria, A diablesa flambesa, Ah ene ama gaxua!, Ha, Ha! hor intzana animal handia! Pardie!; Oho Rekokilart nun iz?; Zer deabru nahi dun?, Zeren debru behar dut joan?; Aize denian oro ari dirdir...*

2) Hitz irudietan gonbarazioak eta metaforak dira nagusi, eta beraiek ematen diote hizkuntzari kolore eta grazia. Mikel Azurmendik aztertu duenean herri irudimena eta gonbarake- tak euskal ahozkerazko animal- metaforaren inguruan idatzitako saiakeran animal- bilduma eder bat oilategia eta ikuilu ondoan dabilena agertu digu. Astolasterretan ageri diren zenbai- tekin aberastua gerta daiteke. Hona adibide batzu: *aphua bezala, lehu bat bezala, kukuso bat bezala, otso putz bezala, sagu-hume bat bezala, urdi bat bezala, zeria bezala.*

3) BEZALA juntagina erabili ordez badira beste joskera batzu interesgarri diruditenak azaltzea, esate baterako: HALA NULA, ENE ALTHIAN, etabar. Hona etsenplu batzu bere testu inguruarekin:

*Senarra dut bortxaz  
den bezalako astua,  
zein maite beitut  
hala nula heriua.* [Planta eta Eleonora, 353. b.]

Gehiegikeriaz gainezka dagoen beste bertso honi ere ez zaio falta umorerik:

*Eztuzieia ikhusten zihaurek?  
Uñurri eli bat zirie ene althian,  
hartzen bazutiet aztaparretan  
orik iresten zutiet eztarrian.* [Kamiko eta Belxetine, 523. b.]

Metaforak, jakina den bezala, hizkuntza poetikoaren eta egunorokoaren mamia eta saltsa ere badira, gauzen artean lotura bitxiak egiten bide direnez, eta lotura hori areagotuz bat bailiren inongo juntaginik gabe agertzen baitira. Astolasterretan aurki ditzakegu horrelakorik, hala nola: *dolorez beztitu, odola gatzatu, odola harritu, peko erreja joitia* (batek miseria gorrien eta handiengan jo duela esateko), *mando hilarri uzkuti olho emaitia* (bat alferrikako lanetan eta beranduegi dabilela adierazteko), eta beste. Baina astolastergilearen irudimena xit aberatsa agertuko zaigu batipat sexu harremanak aipatzerakoan. Hala alua, zakila edota izorratze lanak modu benetan irudimentsutan azal daitezke ikusiko dugun bezala. Hona etsenplu batzu:

*Aigu Xarrot eneki  
bera egosiren dun ilharra,  
behar dinagu igitu  
zankharteko belharra.* [Pierrot eta Xarrot, 643. b.]

Belzebut satanaren proposamena da hori, baina andereek beren belar idortuak aipatzez aparte beren erabili beharrezko iturriak ere badituzte bertso honek dioenez:

*Guk anderek  
orok beitzugu ithurriak  
eta ez badia xahatzen  
erdoilak beittu hartzen.*[Petit Jean eta Sebadina, 357. b.]

Laborarien munduko irudiok lanarekiko loturak adierazten dizkigute argi eta garbi, belarrak, idorteak, freskatu beharrak, iturriak erdoilak hartuak... Badira, halere, beste arlorik ukitzen duten esamoldeak eta agian kopistaren mementoko beharrekin lotuta dagoenik nola beste bertso honetan azaltzen dena:

*Allo, arren orai  
behar dizugu retiratu  
eta ene luma  
zure izkiribiguan sarthu.* [Rekikilat eta Arieder, 75. b.]

Noski, horrelakoetara beharrune handitan eta susaturik egoteak bultzatzen zituen harrak eta emeak. Baina izorralan horien ondorenak ez ziren batere atseginak anitzetan, ezen okupaturik, sabela hanturik edo tripa beterik gelditzen baitziren, haur minetan jartzen etorkizun gabeko edo baitezpadako neskati gazteak.

Joskera irudien artean aipatuko genituzke hiperbatona eta anafora, hau da, perpausaren egitura arruntaren aldatzeari eta errepikatzei dagozkionak. Adibidez: *Den bezalako astua; Aigu, aigu, astua; A, Arieder, Arieder / kita, kita plaza haur; Etzakinat, etzakinat / eztianez phakaturen; banua, banua xerka / hura den lekiala*

Etsenplu aski dotorea Malkulinaren bertso hau litzateke:

*Adio ene bizia,  
adio ene izaitia,  
adio ene floria  
eta Liki maitia.* [Malku eta Malkulina, 80. b.]

4) Antzerti honek lehenetariko helburua irria duenez gero, ez ditu eskasean gogoeta irudiak, hiperbolez, esajerazior ez ironiaz beterik diren kobletan, hala nola enperadoreaz trufatzen den bertso hau:

*Jente hunak, behar duzie ikusi,  
orai istoria eder bat,  
uzker batez jauzeraziten  
enperadoreari begi bat.* [Rekokilat eta Arieder, 83. b.]

Esajerazior ez gehiegikeriaz beterik daude astolasterretako elkarrizketa asko, baina batipat satanen eta jiganteenetan ez dira falta honelakoak bezalakoak: *adarrez adar aisa beita / jananen beste mundiala; jauntto huik egin dezen / arrautzerik hautsi gabe muleta; Beirotinaren gaina igaraiteko / zurubiak behar tu; idi bat jan dut bere larru / eta aztaparrekila; aho bat ere badizu labia bezain handiko; apetitu hun bat badut / khiristien jateko / ez nutuke hamabost / sobera apairuko...*

5) Errefrauez, esaera zaharrez, erran komunez edota atsotitez beti baliatu izan ohi dira idazle handiak mendeetan zehar, eta ez dira astolasterretan falta. Adibide batzu emango ditugu:

*Atzo hotz, egun bero,  
jente guztia beti ero.* [Boubane eta Xilloberde, 142.b.]

Honen aldaera bezala har dezakegu beste hau:

*Atzo hotz, egun bero,  
plaza huntan zunbat ero.* [Xiberu eta Marzeline, 105.b.]

Zenbait aldiz liburuetatik hartutako aipamenak ere aurki ditzakegu hala nola Salomonenetik itzulitako hau:

*Arren duk errana  
Salamunen proberbiuan:  
Ihaur atzamanik izan iz  
besteri hedatu lazuan.* [Rekokilat eta Arieder, 245. b.]

Antonio Zavalak eginiko *Esaera Zaarren Bilduma Berria* [1985] deitu liburuan antzeko hau aurki daiteke: *Gezurtia eta maingua laster hatxemanak*. Ageri da astolasterretan beste bat tupa, hots, kupela eta ardoa aipatzen dituen, Arnaud Oihenartek bezalaxe:

*Thupa gaistotik ardu hunik  
elkhitia imposible da.* [Rekokilat eta Arieder, 166. b.]

Xarrot gizagaisoak erditze lanetan, haur minetan dagoenean honakoxe hau esaten digu:

*Ezta aise bunet batez  
bi bururen kukutzia,  
hori da gure etxeko  
konparantza guzia.* [Pierrot eta Xarrot, 252. b.]

Errefrau berdintsua bildu zuen Jose M. Satrustegik eta A. Zavalari bidali: *Txapel batekin bi buru estaltzen dituen* [1985:118]. Adierazteko norbaitek bi aurpegi dituela.

Erramu eta Bazkoaz badira ere zenbait erran zahar ez bakarrik Zuberoan Biarno aldean ere esaten direnak. Dauge-k dioenez [1982:86], koroa daramaten nesken eliz-ezkontzen ordua goizeko hamarrak edo hamaikak izaten ohi zen arruntean. Baina beren gauzak garaia

baino lehenago mugitu zituztenak, eta portaera ohizkotik kanpokoak izan zenean, edo norbait okupaturik ezkontzen zenean goiz alban egiten zen, zazpiak inguruan, eta hauetaz erretrau hau esaten zen:

*Qu'ant heyt Pascous aban Rams  
Elles ont célébré Paques avant Rameaux.*

Eta beraxe da agertzen zaiguna bi astolasterretan: *Malkus eta Malkulina* eta *Saturno eta Benusen*. Azken honetakoak honela dio:

*A, egin duzia Bazko  
Erramu beno lehen,  
gaztetorik aragiari  
gisala uhartu zinen. [304. b.]*

Hau, noski, ez digu biltzen aita Zabalak. Antzinatik datozkigun perla bitxi hauek herri iru-dimenaren lekuko eder eta paregabe dira mende eta urte anitzetan bildutako jakituria eta esperientzia esaldi labur eta trinkoetan jasotzen dutenak, eta literaturgile hoberenek inoiz mespretxatu ez dituztenak beren idaztietan.

Halaber, kritikari zailenek fartzei buruz beren iritzia ematerakoan, esaten digute, hauen literatur balioa eta poetikari dagokiona jeneralki haundia ez izan arren darabilten hizkuntza benetan jatorra eta ona dela eta bertan filologoen ediren dezaketela hiztegi bizi eta bitxia. Eta areago oraindik, Louis Petit de Julleville-k zuzendutako irri teatroari buruzko ikerketak, literatura tradizio baten sortzaile direla, dio:

Les oeuvres comiques nous choquent souvent par la grossièreté de la plaisanterie; mais la vivacité, la franchise du trait y est souvent remarquable, et ces essais sans art ont fondé une tradition littéraire.[1896:444]

Tradizio horren biltzaile eta sustengatzaile ditugu Frantziar Molière izan zen bezala, eta tokian tokikoak, noski, gure bi idazle hoberenetakoak: Gabriel Aresti eta Xabier Lete. Lehenak *Mugalde herrian eginikako TOBERA, bi zatitan konpondurikako komedia* [1973] idatzi, eta 1961. urteko Toribio Alzaga saria irabazi zuena, Antonio Arruek, Koldo Mitxelenak eta Luis Villasantek hamasei ikusgarritik hoberenetsi zutelako, bertan tobera baten antzezkizuna eta inguruko gertakizunak direla antzezagai. Bigarrenak *Txirritaren Asto Lasterra* idatzi zuen eta Intxixu, Eujenio Arozenaren zuzendaritzapean zen antzeztaldeak plazaratu [1977].

Bide eta tradizio hau ez litzaeieke egin behar arrotz eguneko antzeztaldeei, eta ongi eza-gutu beharko lukete, dudarik gabe. Baina, baita ere literatur kritikariek, ezen xit eztabaidagarrri daitekeen Garamendiren iritzi ezkor eta deuseztatzailearen aurrean nahiago dugu gelditu Lafitteren iritziarekin, zeinek Rabelais-en etsenplua gogoraraziz egunoroko bizitzatik hartutako herri hizketaren gardentasun eta ozentasuna azpimarratzen digun:

Le basque y est meilleur que dans les pastorales à sujet tragique: les poètes ne s'y échauffent pas en vaine pédanterie: ils vont droit devant eux, rasant le sol, exagérant certes à la manière de Rabelais, mais en termes clairs et sonores pris dans le trésor quotidien. [1941:29]

Hona bada hemen, laburzki emana, benetazko euskal antzertiaren, antzerti zaharrenaren, Zuberoako irri teatroren, astolasterren hurbiltze saioa.

**BIBLIOGRAFIA**

- ARESTI, G.: «Zenbait ele samin», *Jakes Oihenarte. Kaniko eta Belxistine*. Lur editoriala, Donostia 1971, 7-18.
- AROZENA, E. & LETE, X.: *Antzerkia deuseztik izatera*. Itxaropena, Zarautz 1977, 1-7.
- AUBAILLY, J. C.: *Le Monologue, le Dialogue et la Sottie. Essai sur quelques genres dramatiques de latin du Moyen Age et du début du XVIe siècle*. H. Champion, Paris 1976.
- AUBAILLY, J.C.: «Images de la Femme dans le Théâtre Médiéval». *II. Simposi de Teatre Medieval et dil Renascença*. Barcelona 1988.
- AULNOY, M. dé.: *Relation du Voyage d'Espagne*. C. Barbin. Paris 1691.
- AZKUE, R.M.: *Euskalerrriaren Yakintza II*. Espasa-Calpe, Madrid 1966.
- AZURMENDI, M.: *Euskal Nortasunaren Animaliak. Euskal ahozkerako animalia-metaforaren inguruan*. Baroja. Donostia, 1987.
- BAJTIN, M.: *La cultura popular en la Edad Media y en el Renacimiento. El contexto de Rabelais*. Alianza. Madrid 1987.
- BARBIER, J.: *Sorginak*. Gure Herria. Baiona 1922.
- BARRIOLA, I.M.: *Los Amigos del País y la Medicina*. Biblioteca Vascongada de los Amigos del País. Donostia 1963.
- BOISSEL, W.: «Notices pour l'établissement d'un catalogue. Fonds Campan-Latsague», *Bulletin du Musée Basque*, 3-4, Baiona 1926.
- BOLLEME, G.: *La bibliothèque bleue. La littérature populaire en France du XVIIIe au XIXe siècle*. Gallimard, Paris 1971.
- CARO BAROJA, J.: *El Carnaval. Análisis Histórico-cultural*. Taurus, Madrid 1965.
- CARO BAROJA, J.: *Brujería Vasca*. Estudios Vascos V. Txertoa, Donostia 1975.
- CARO BAROJA, J.: «El charivari en España», *Temas castizos*. Istmo, Madrid 1980, 191-230.
- CARO BAROJA, J.: «Vida y muerte de la encerrada», *Historia*, nº 47, Madrid 1980, 54-70.
- CASENAVE-HARIGILE, J.: «Zuberotar Antzertiaren Sortzeaz eta Iturriez», *Antzerti Berezia* 4, Donostia 1983, 4-10.
- COROMINAS, J.: *Breve Diccionario Etimológico de la lengua castellana*, 3 ed. Gredos, Madrid 1973, 144.
- CHAHO, J. A.: *Biarritz entre les Pyrénées et L'Océan. Itinéraire pittoresque*. A. Andreossy, Bayonne 1855.
- CHAHO, J.A.: *Dictionnaire basque, français, espagnole et latin...* P. Lespès. Bayonne 1855-1857.
- CHEVALIER, M.: *Tipos cómicos y folklore (siglos XVI-XVII)*. Edi, 6, Madrid 1982.
- DAUGÉ, C.: *Le Mariage et la famille en Gascogne d'après les proverbes et les chansons*. Jean Gurutchet, les éditions Harriet, Bayonne 1982.
- DAUZAT, A. et al.: *Dictionnaire Larousse Etymologique*. Paris 1971.
- DESPLAT, CH.: *Le Charivari en Gascogne. La «morale des peuples» du XVIe au XXe siècle*. Berger-Levrault Paris 1982.
- DESPLAT, CH.: «Familie et communauté: contraintes et lois morales de la fin du XVe siècle au début du XIXe siècle», *Société, politique, culture au Pays Basque*. Elkar, Donostia 1986, 153-199.

- DEYERMOND, A.D.: *La Edad Media. Historia de la Literatura Española*. Ariel, Barcelona 1973.
- DUVOISIN, J.: «Comédies des Basques», *L'Album Pyrénéen*. Pau 1841, 90- 102, 207-215.
- EGIATEGI, J.: *Lehen liburua edo filosofo huskaldunaren ekheia* (1785). Tx. Peillenen edizioa. Euskaltzaindia. Bilbao 1983.
- ESTEVA FABREGAT, C.: «Ritual y dramaturgia: contexto antropológico del teatro. Comedias, dramas y tragedias», Eusko Ikaskuntza. *Antropología-Etnografía*, 5. Donostia 1987.
- GARAMENDI, A.: «El teatro folklórico vasco: perspectivas de investigación», II. Euskal Mundu-Biltzarra. Literatura. Gasteiz 1987.
- GARCIA DE ENTERRIA, M. C.: *Sociedad y poesía de cordel en el Barroco*. Taurus, Madrid 1973.
- GARMENDIA, J.: *Iñautería. El carnaval vasco*. Sociedad guipuzcoana de ediciones. CAM, Donostia 1973.
- GIURY, G.: *Le Musée des sorciers, mages et alchimistes*. H. Veyrier, Paris, 1966.
- GUILCHER, J. M.: *La Tradition de danse en Béarn et Pays Basque-français*. Maison des sciences de l'homme, Paris 1984
- HARITSCHELHAR, J.: *Le poete souletin Pierre Topet-Etchahun (1786-1862). Contribution a l'étude de la poésie populaire basque du XIXe siècle*. Société des Amis du Musée Basque. Bayonne 1969.
- HARITSCHELHAR, J.: «Pierre Lafitte, critique littéraire», Hommage à Pierre Lafitte. *Bulletin du Musée Basque*, n° 113-114. Baiona 1986, 177-188.
- HARRUGUET, S.: *Le Carnaval au Pays Basque. IHAUTIRI SOLAS. Oraisons funèbres de Carnaval*. Porche & Co, Bayonne 1936.
- HEERS, J.: *Fêtes des fous et Carnavals*. Fayard, Paris 1983.
- HEGUIAPHAL, M.: *Santa Jenebieba (Pastorala)*. Antzerti 65. Donostia 1984.
- HÉRELLE, G.: «Les charivaris nocturnes dans le Pays Basque-français», *RIEV*, XV, Donostia 1921, 505-522.
- HÉRELLE, G.: «Jean Baptiste Hardoy, Instruccionea». *Gure Herria*, Bayonne 1923, 311-325.
- HÉRELLE, G.: *Le théâtre comique des basques*. H. Champion, Paris 1925.
- IRIBARREN, J.: «Estampas del Folklore navarro», *Príncipe de Viana* 17, Pamplona 1944.
- IRIBARREN, J.: *Vocabulario Navarro. Segunda edición preparada y ampliada por Ricardo Ollaquindia*. Príncipe de Viana. Pamplona 1984. 264.
- IRIGARAI, A.: «Beaumonteses - Agramonteses y el Vasceuce», *Fontes Linguae Vasconum*, n° 38, Pamplona 1981.
- ITHURRIAGUE, J.: «Littérature populaire basque», *Visages du Pays Basque. Horizons de France*. Paris 1946, 134-168.
- IVES-RENOUARD, *Rôles Gascons*. Paris 1962. T.IV, 1307-1317.
- JOUBERT, L.: *Erreurs populaires et propos vulgaires touchant la médecine et le régime de santé*. Bordele, 1579.
- JUARISTI, J.: *Literatura vasca*. Taurus. Madrid, 1987.
- LACOMBE, G.: «Une these a la Sorbonne sur la pastorale d' Hélène de Constantinople», *RIEV*, III, 1909, 261-274.

- LAFITTE, P.: *Le Basque et la littérature d'expression basque en Labourd, Basse-Navarre et Soule*. Aintzina, Baiona 1941.
- LAFITTE, P.: *Manex Etchamendy bertularia (1873-1960)*. Auspoa 109-110. Donostia 1972, 104-106.
- LAFITTE, P.: «Herri Literaturaz», *Lur eta gizon. Euskal Herria. Jakin 9*, Oñati 1974, 243-263.
- LAFON, R.: «Contact de langues et apparition d'une nouvelle voyelle: u et ü en basque», *Actes du Xe Congrès International de Linguistique et Philologies Romanes*. C. Klincksieck. Paris 1965.
- LANCRE, P. de: *Tableau de l'inconstance des mauvais anges et démons...* Paris 1610.
- LARZABAL, P.: «Gure Antzertia», *Gure Herria*, Baiona 1966.
- LEBEQUE, R.: «Notes sur le personnage de la servante», *Revue d'Histoire littéraire française*. Janvier-février 1983, 3-14.
- LEBRAZ, A.: *Le théâtre celtique*. Slatkine, Genève Paris 1981.
- LEBRUN, I.: «Le charivari à travers les condamnations des autorités ecclésiastique en France du XIVE au XVIII siècle» *LE CHARIVARI...* Mouton, Paris, 1981.
- LE CHARIVARI: Actes de la table ronde* organisée à Paris, 25-27 avril 1977. Mouton, Paris 1981.
- LEKUONA, M.: *Aozko Literatura*. Kardaberaz bilduma 22. Tolosa 1978.
- LEKUONA, J. M.: *Ahozko Euskal Literatura*. Erein, Donostia 1982.
- LE ROY LADURIE, E.: *Le Carnaval de Romans. De la Chandeleur au mercredi des Cendres*. Gallimard, folio. Paris 1979.
- LOPE MARTINEZ de ISASTI, *Compendio Historial de la M.N. y M.L. provincia de Guipúzcoa. 1625*. Baroja, San Sebastián 1850.
- MARLIANE, O.: *Trésor de la mythologie Pyrénéenne*. Annales Pyrénéennes. Toulouse 1987.
- MICHEL, F.: *Le Pays Basque, sa population, sa littérature et sa musique*. F. Didot. Paris 1857.
- MOZOS, I.: *Ihauteria Euskal Literaturan*. Eusko Ikaskuntza. Hizkuntza eta Literatura 6, Donostia 1986.
- MOULIER, J.: «Oxobi», *Oxalde (1814-1897)*. *Euskaltzaleen Biltzarra*. d.g.
- NOGARET, J.: «Une parade charivarique à Esterençuby», *Bulletin du Musée Basque*. Bayonne 1926.
- OIHARTZABAL, B.: «Zuberoako Herri Teatroa», *Antropologiaren Euskal Bilduma (AEB)* 4, Haranburu, Donostia 1985, 41 -92.
- OIHENART, A.: *Les proverbes recueillis par le St. D'Oihenart plus les poésies Basques du même auteur*. Paris 1657, 38.
- OIHENART, A.: *L'Art Poétique Basque (1665)*. P. Lafitteren edizioa. Gure Herria, Baiona 1967.
- ORMAETXEA, N.: «Orixe»: *Euskaldunak*. Itzaropena, Zarautz, 1950, 495.
- PEILLEN, TX.: «Eske pertsuen bilduma (II)», *Cuadernos de etnología y etnografía de Navarra*, nº 22, Iruñea 1976.
- PEILLEN, TX.: «Euskal Antzerki Zaharrenak», *Euskera*, Bilbo 1981, 837-844.
- PEILLEN, TX.: «Komiko Baliapideak Ziberuako Herri Literaturan», *Antzerti Berezia* II, Donostia 1985, 2-6.
- PETIT DE JULLEVILLE, L.: *Histoire de la langue et de la littérature française. 2. Moyen Âge*. A. Colin. Paris 1896.
- PEYREGNE, L.: *Casaurang de Lanne et son adaptation de la pastorale Mardy-Gras*. Marrimpouey jeune. Pau 1978

RABELAIS, F.: *Gargantua et Pantagruel*, IV Livre. Fezandat, Paris 1552.

RAMIREZ MOLAS, P.: «La gràcia del teatre bilingüe». *II Simposi de Teatre Medieval et dil Renascença*. BARCELONA 1988.

REINARES, R.: *Culture, fête et Carnaval à Bayonne*. Ikerka, Baiona 1984.

REY-FLAUD, H.: *Le charivari. Les rituels fondamentaux de la sexualité*. Payot, Paris 1985.

ROOS, M. de: «L'élément charivarique dans les farces du carnaval allemande du XVe siècle». *II Simposi de teatre medieval*. Barcelona 1988.

SAROHANDY, J.: *La pastorale de Roland*. Bulletin des Lettres, Sciences, Arts et d'études regionales. Baiona 1927.

URKIZU, P.: «Impresiones de Boadella sobre la Pastoral Vasca», *Antzerti Berezia*. 1983, 2.

URKIZU, P.: *Euskal Antzertia*. Eusko Jaurlaritza. Antzerti saioak 1. Donostia 1984.

URKIZU, P.: *Astolasterrak*. Eusko Jaurlaritza. Antzerti Zerbitzua 67. Donostia 1984.

URKIZU, P.: *Bertso zahar eta berri zenbaiten bilduma (1798)*. Durango-ko Udala, 1987.

URKIZU, P.: *Pierre D'Urteren Hiztegia. Londres 1715*. Mundaiz. Donostia 1989.

VINSON, J.: *Folklore du Pays Basque. Les littératures populaires des toutes les nations. Traditions, légendes, contes, chansons, proverbes, devinettes, superstitions*. T. XV. Maisonneuve & Lavise, Paris 1883.

WEBSTER, W.: «Les pastorales basques», *La Tradition au Pays Basque*. Congres de Saint-Jean-de-Luz, 1897. Berrargitaraldia, Elkar, Donostia 1982, 243-265.

YANGUAS, I.: *Diccionario de antigüedades...* Berrarg. Iruñea 1964.